

uk

90. zenbakia / 2005 azaroak 20



IV SALÓN DEL CÓMIC DE GETXO

GETXOKO IV. KOMIKI AZOKA

PLAZA DE LA ESTACIÓN DE LAS ARENAS
AREETA KO GEL TOKIKO PLAZA

ABENDUAK 2-4 DICIEMBRE
11:00 - 14:30 // 17:00 - 21:30



PRECIO
PREZIOA 1€*

* CON LA BOLSA
DE BSK - 1€ GRATIS

Bilbao Foru Diputazioan Foru
Alcaldia Foru
Bilbao Foru Diputazioan Foru
Alcaldia Foru

EL CORREO

Getxo
MUSEO
MUSEO

bbk

metro bilbao

EL CORREO

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Muxua. Mikel Martinez.
6. PLAZA. Leihatila, Maddi Albizu. Photoshop.
7. LEHEN ETA ORAIN. Arriluze.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
9. ERRETRATUA. Edume Bilbao sukaldaria. Asier Mentxaka.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopelana 18. Berango 20. Gainerako herriak 21.
23. AGENDA.

SAKONEAN

24. ALBUMA. Eskualdea sutan, Asier Mentxaka.
26. ERREPORTAJEA. Bazter mehatatuak, Unai Brea.
28. ARGAZKIA. Skater zoroa, Carlos Terreros.
30. BERBETAN. Pedro Miguel Etxenike, U. B.
34. FOTOGRAFIA. Pou anaiak, Jabi Baraiazarra.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Oskar Fernandez zutabea. *Gisaku* pelikula.
43. MUSIKA. Zura taldea. Diskoan erreseinak.
44. LIBURUAK. Txillardegia. Liburuaren erreseinak.
44. KIROLAK. Gebxoztar bi Yosemiteen.

EUSKARAZ

46. ELKARRIZKETA. Aketza Sanchez, Unai Brea.
47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.


AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoaren errezeta eta Itsaso Aranaren ardaoaren gaineko lezioa. Nora joan? Adibidez, Algortako Jolas Aurre tabernara.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Apurtuarte futbol taldea, 1926.
54. AITORMENAK. Joana Lasheras.

Azaleko argazkia: Iker Pou, Grampians, Australia (Jabi Baraiazarra)



30 Pedro Miguel Etxenike



44 Txillardegia

Berbetan

Euskal Herriko zientzialaririk bikainenetakoa eta, duda barik, ezagunena da. Orain gitxi, Espainiako Ikerkuntza Sari Nazionala emon diote.



34 Pau anaiak



46 Aketza Sanchez



54 Joana Lasheras



45 Kirola

· bitxidenda
· bitxi taile -
na
· konponke -
ta



EDUARDO
BITXIGILEA

- m Kristalezko bitxiak
- m Zurezko bitxiak
- m Australiako perlak
- m Tahitiko perlak
- m Idatzizko bitxigintza



Eleiz Eparantza, 21 48620 PLENTZIA Tel: 94 677 03 16

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 4891 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel

FOTOGRAFIA: Asier Menbaca

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILEAK: Unsi Brau, Bittor Egurrola, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Amezaga, Esti Ezkerra, Itaso Arana, Gaizka Escudero, Ainhoa Lores, Amaia Arriaga, Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskaraz Elkartea.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskaraz elkarrean Topaguneko partaidea da

 <p>Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskaraz Elkartearen dirulaguntza jasotzen du</p>	 <p>Ixasgane Etxea / Karitatea 1 94 491 43 57 / 48990 Algorta</p>
---	--

 <p>Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du</p>	 <p>Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskaraz Zerbitzuko dirulaguntza jaso du</p>
--	---

 <p>Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du</p>	 <p>Aldizkari honek Berango Udalaren dirulaguntza jaso du</p>
---	---

 <p>Aldizkari honek Sopelano Udalaren dirulaguntza jasotzen du</p>	 <p>Aldizkari honek Sopelano Udalaren dirulaguntza jasotzen du</p>
---	---

 <p>Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du</p>	 <p>Aldizkari honek Sopelano Udalaren dirulaguntza jasotzen du</p>
---	---

 <p>Aldizkari honek Eroski Fundazioaren Kultura Salaren dirulaguntza jaso du</p>	 <p>Aldizkari honek Sopelano Udalaren dirulaguntza jasotzen du</p>
---	---

 <p>Aldizkari honek Eroski Fundazioaren Kultura Salaren dirulaguntza jaso du</p>	 <p>Aldizkari honek Sopelano Udalaren dirulaguntza jasotzen du</p>
---	---

 <p>94 491 13 37 uk@aldizkaria.biz</p>	 <p>Aldizkari honek Sopelano Udalaren dirulaguntza jasotzen du</p>
---	---

gugeu

Abenduak 3

Euskararen eguna ospatzen da urteko azken hilaren egun horretan. Erraza da esatea euskaraz urteko egun guztiak behar dituela eta ez bakarra. Erraza esatea ere bada ez garela egun seinatu horien zale, hau da, emakumearen eguna, gay eta lesbianena... Horrelakoak gaur egun ere ospatzeko beharra baldin bago, zeozer ondo ez dabilen adierazle dela hori. Eta ados egon gaitzeko honekin. Baina hor nonbait, praktikoagoak izan gura dugu oraingoan, eta ez betiko moduan hain negarti edota ezkor azaldu.

Euskararen egunaren harira, makina bat ekitaldi antolatu dituzte eskualdean. Egia da, guztiak udaletako euskaraz zerbitzuek bultzatutakoak direla eta, akaso, erakunde ez ofizialen ekimenen falta igartzen dela.

Beste herrietakoak gutxietsi barik (bakoitzak bere neurrian dihardu-eta), *Gu geu* honetan Getxoko Euskaraz Zerbitzuak prestatu duen kultur programa oparoa azpimarratu behar dugu: *Aupa Etxebeste* filma, Mikel Urdangarinen kantaldia, Umore Jardunaldiak... Euskaraz gozatzeko makina bat ekitaldi atsegin. Guztiak aprobeatzekoak!

Batzuek esango dute baliabideekin erraza dela horrelako egitaraua aurrera ateratzea. Guk, berriz, baliabide horiek guztiak Udalak euskararen eta euskaldunen mesedetan ipintzea poztekoa dela diogu. ⁴

UK-ko lantaldea

irakurleak

Zuon iritziak, eskaerak, proposamenak... garrantzitsuak dira guretzat. Harremanetarako: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

matematika aplikatua



Gorka Vázquez

Goizero irakurri > **berria**



EREAGA, 2005eko AZAROA

Mosua / “Aulkia eguzkitan”, edo akaso, “Jesarleku distiratsua” titula genezake goiko irudia. Baina -ez daukagu erremediorik- erromantiko hutsak gara eta horregatik argazkiaren bigarren planora jo dute gure begiek zuzenean, musu ezitstu horretara hain zuzen ere. Maitasuna eraskutearren norbait ezpainez ukitzea da musua. Ze gauza sinplea eta aldi berean ederra! Negu hotzaren atarian maitasun erakustaldi publiko honetan zebiltzala harrapatu genituen argazkiko bi maitaleak. m / Argazkia: **Mikel Martínez**



[lehen]



GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA

[orain]



ASIER MENTAKA

Iraganez doa denbora* beti / ARRILUZE 1908-2005

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

[talaia]

urteurrena > Getxoko udal euskaltegiak 20 urte

Getxoko udal euskaltegiak 20 urte bete ditu getxoztarrak euskalduntzen. Jende andana pasa da udal euskaltegitik, 13.000 bat lagun, eta behar horrek guztiak ospatzea merezi zuen. Horrela, hilaren 7tik 11ra bitartean ekitaldi desberdinak egin dituzte urtebetzea dagokion moduan ospatzeko, aipagarrienak, euskaltegiko argazkien erakusketa, euskararen bilakaeraren gaineko mahai-ingurua eta film laburren emanaldia izan dira. Baina euskaltegitik pasa direnentzat gauzarik onena beheko argazkian ikus dezakezuen 20. urteurrena ondo baino hobeto ospatzeko egon zen luntxa izan zen, non ikasle eta irakasle ohiak batu ziren. ^m



Ezkerraldean, urteurrenaren ospakizunetako bat. Eskubialdean, argazki erakusketaren irudi bi.

suntsiketa > Txopoetako garbileku zaharra bota dute



Eskualdea arin baino arinago aldatzen dabil, noren onerako? Galdera horri ez diogu erantzunik emango, baina zeren kalterako den argi daukagu, ondare historikoaren eta naturaren kalterako. Horren hamaika adibide desberdin daukagu eta honakoan Lamiako inguruko Txopoetara jo dugu. Museo txiki eta oroigarria zen Txopoetako garbilekua bota egin dute, ondare historikoa zen eta paisaiarekin naturalki bat egiten zuen txoko txikia bota egin dute. Ze helbururekin? Laster ikusiko dugu. ^m

[erretratu]



Getxoko udaleko zahar egoitzako sukaldean ia 20 urte daroaz beharrean Edurne Bilbao

Edurne Bilbao > gure aitite-amamen sukaldaria

Edurne Bilbao astrabuduarra beterranoa dugu Getxoko udaleko zaharren egoitzan. Hantxe ibili da, lapiko eta saltsa artean, "82 edo 83tik", ezin zehatz gogoratu. Bilbaok, bere lankideakaz batera -"lau behargin eta sukalde-burua gani"- 140 lagunentzat prestatu behar du armosua, bazkaria, merienda edo afaria, txandaren arabera egokitzen zaiona. Urteko egun guztietan egoten da beharra, zahartzea oso ohitura errotua da-eta gure artean. Behin hasiz gero, gainera, ezin zahartzeari utzi: egunero egiten da. Beraz, bezerorik eta lanik ez zaizkio falta Edurne Bilbaori. "Erraza da" esaten hasi zaigu, baina gerotxuago lehenengo erantzuna nabaritu gura izan du: "Behin indabak lapikora botatzen hasita, bost axola 50 edo 150entzat egitea, baina tortillak prestatzea edo arrautzak prejitzea bestelako kontuak dira". Eta esandakoa ilustratzeko olio beroaren haginkada hamaika bider jasan duten besoak erakusten dizkigu. Gero, gainera, etxera itzultzean, "arrautza gura duzu afaltzeko?" entzun behar, edo "ama, egiguzu tortilla"... Askorentzat egon behar du jatekoa, eta ezin den-denak konforme egon. Esaten dute, gainera, urteak pilatu ahala arrarago bihurtzen garela denok; seguruenik, gero eta hurbilago igartzen dugulako ahalik eta urrunen gura genukeen hura. Edurne ez da kexu, hala ere: "Protesta asko egiten dute, baina txalotu ere bai; batzuk sukaldaria ere etortzen dira, bai kritikatzeko bai zoriontzeko". Antza, gehiago dira bigarren taldekoak. Urte askotarako, bada. ^m Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Unai Brea**

Euskara jardunaldiak

Programa ederra prestatu dute aurten hamar egun iraungo duten Euskara Jardunaldietarako: **munduko afariak** eskainiko dituzte etorkinek euskaraz, **Aupa Etxebeste** filma, **Mikel Urdagarinen** kantaldia, **umore jardunaldiak**, etab.

Azaroaren 22an hasi eta abenduaren 3ra arte -Euskararen Eguna- luzatuko dira aurtengo Euskara Jardunaldiak. Egun horietan guztietan zer ikusi, zer entzun edota zer jan egongo da. Inoiz baino luzeago eta inoiz baino aberatsago datozkigu aurten jardunaldiak.

Jardunaldiak hilaren 22an hasiko dira Torrene kaleko BBK aretoan zabalduko den bertsolaritzaren gaineko erakusketarekin. *Hitzak egiten gaitu ezer* deitzen den erakusketa honen atzean izen handiak daude, esaterako, Koldo Izagirre edota Amets Arzallus. Erakusketa hau egiteko orduan bertsorik gabeko Euskal Herria hartu zuten abiapuntu egileek.

Jardunaldiak badakartzate nobedaderik. Euskara ikasten dabilen etorkinek eta herriko beste hainbat herritarrek ospakizun giroan jatorri desberdinetako otorduak eskainiko dituzte euskara hutsean. Prezio merkean Filipinetako, Ekuadorreko edota Ukrainako janariak eskainiko dira Algortako The Irish Pipers Pubean (erreserbak 94 491 11 85) azaroaren 24tik 26ra.

Leku berean, The Irish Pipers Pubean, eta iluntzeko 20:00etan, V. Umore jardunaldiak egingo dira hiru egunez. Azaroaren 29an, *Bersotrupak* ikuskizuna eskainiko dute Ander Lipus, Andoni Egaña eta Aitor Agirianok. Biharanumean, *Bob, nor da Bob?* umore dosi handiko antzerki lana egongo da. Abenduaren 1ean, umore jardunaldiak amaiera emango diote Mikel Martinezek eta



Bere azken lana aurkeztuko du Mikel Urdagarinek Getxo antzokian azaroaren 27an

Patxo Telleriak. Izan ere, sexuaz jardungo dute *Larru haizetara* antzezlanean.

Musika ere badakarte jardunaldiok. Batetik, azaroaren 25ean Getxo Antzokian Zura taldeak 36ko gerrak desagerrarazitako hiruroi sorzaile omenduko ditu: Federico Garcia Lorca, Lauaxeta eta Nikolas Lekuona. Bestetik, Mikel Urdagarinek bere azken

«Abenduaren 3an Aupa Etxebeste! filma eskainiko da»

lana *-Dana-* aurkeztuko du Getxon eta hitzordia hilaren 27an da, 22:00etan (sarrera 6 euro).

Bestelakorik ere egongo da. Esaterako, Pau anaiek *Gailurrak eta paretak* hitzaldia

emango dute hilaren 24an Getxo Antzokian 20:00etan. Azkenik, leku berean *Aupa Etxebeste!* euskarazko film arrakastatsua eskainiko da abenduaren 3an. Beraz erne ibili, euskaraz gozatzeko aukera ederra izango dugu eta datozen egunotan. m



Garapen lankidetzako 27 proiektu bultzatuko ditu Udalak 331.150 euroko laguntzaz



Haur taldea Ganbian

Getxoko Udalak 331.150 euro bideratuko ditu Garapen Lankidetzako 27 egitasmo aurrera eramateko. Beraz, Hegoamerika, Ertamerika, Afrika, eta Sahara baita Euskal Herrian eta Getxon ere, dauzkaten proiektuak garatzeko laguntza jasoko dute 25 GKEk.

Genero politikak barneratzen zituzten egitasmoak lehenetsi ditu aurten Udalak, horrenbestez ekimen gehienak andrazkoen egoera eta parekidetasuna hobetzea helburu duten arlokoak dira. Laguntza jaso duten gainontzeko egitasmoak hurrengo esparruetan sartzen dira: osasuna, nekazal eta lan munduaren garapena, larrialdi eta salbuespen egoerak, eta sentibilizazio ekimenak. Horrez gainera, hezkuntza eta giza eskubideen aldeko egitasmoren baten batek ere jasoko du diru-laguntza.

Garapen Lankidetzako 15 egitasmo sustatzeko 281.000 euro banatu dira. Sei sentibilizazio proiektutara 43.000 euro zuzendu dira, eta gainontzeko 7.150 euro ak ume errusiari eta bielorrusiarrei aldi baterako harrera egiteko 6 ekimenek jasoko dituzte. m

Garapen Lankidetzako 15 egitasmo sustatzeko 281.000 euro banatu dira. Sei sentibilizazio proiektutara 43.000 euro zuzendu dira, eta gainontzeko 7.150 euro ak ume errusiari eta bielorrusiarrei aldi baterako harrera egiteko 6 ekimenek jasoko dituzte. m

KONPOSTAGINTZAKO PLANTA EGITEKO ASMOA IRAGARRI DU UDALAK

Azken erabakia oraindino hartzeko badago ere, Getxoko Udalak konpostaje-planta bat eraikitzeko proiektua egiteko zenbateko bat gorde du 2006ko aurrekontuetan. Hiri hondakin solidoen kopuru bat konposta bihurtuko litzateke planta horretan, eta birziklapen horren ondorioz hiri hondakin gutxiago geratuko liriteke tratatzeko. Horren albotik, gogora ekarri Getxoko Udalbatzak hondakinak Zabalgarbiko erraustegian tratatzeko aukerari ezezkoa eman ziola. Alabaina, auzi honetan azken hitza emateko dago.

Getxoko zabortegia



36KO GERRAKO OBUSA AURKITU DUTE AZKORRI INGURUAN

Azaroaren lehenengo domekan, Azkorri inguruan, Zientzoetxe auzoan hain zuzen, paseoan zebiltzan lagun batzuek 36ko Gerran botatako obus bat aurkitu zutela jakinarazi zuen Ertzaintzak. Azkorri hondartzara doan bidea itxi ostean jaurtigailu zaharra paretik kendu zuten ertzainek.

RENAULT ocasión

IBILGAILU IA BERRIEN GUNEA GETXON

"0 Km" dun ibilgailuak, Ibilgailu ia berriak eta Aukerakoak. **RENAULT**en bermearekin.

Getxo I Institutuaren ondoan

RENAULT
BILBO BERRI
Biskarros/k.s/g - ALGORITA
Tel.: 94 430 68 81
Jon Arráspide, 20 - BEUSTO
Tel.: 94 448 39 00

Getxoko

andrazkoentzako etxea zabalduko dute datorren urtean

Emakumearen Etxea zabaldu gura dute Algortako Urgull kaleko udal eraikinaren bigarren solairuan datorren urtean. Herriko andrazkoen elkarteentzako egoitza izan gura du etxe honek, baina baita elkarte hauetatik kanpo dauden emakumezkoentzat ere. Hantxe ere Jabekuntza Eskola kokatu gura dutela jakinarazi dute Udaleko Gizarte Zerbitzutik. Gaur egun andrazkoen hamabi elkarte daude Getxon eta guztira 7.000 bazkide dabilta horietan. Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko erreferentziatzeko bilgunea, esan bezala, 2006an zabaldu gura da. ^m

Urgull kalean kokatuko dute Emakumearen Etxea



Erromoko Branka Kultur Elkarte

25 urte bete berri ditu euskal kultura bultzatzea ardatz daukan elkarteak



Elkarteko kide batzuk euren egoitzaren aurrean

Euskal kulturak auzoan zituen premiak hutsuneak betetzeko jai zen Branka Franco hil osteko urte nahasi haietan. Ikastolen mugimendua bultzatu zen handik, gau eskolak... Zenbaezinak dira azken 25 urte hauetan Brankatik bultzatu diren ekimen kultural eta politikoak.

“Garaiak asko aldatu dira. Branka sortu zenean, trantsizioaren ondorengo urteetan, euskal kulturaren alde guzti-guztia egiteko zegoen. Gauzak horrela, hasierako urteetan bai ikastolen mugimendua bai gau eskolen sorrenan burubelarri sartu zen elkarteak”, adierazi digu Josu Iturburu, azken 20 urte hauetan Brankan ibilitako lagunak. **“Denbora asko pasatu da eta zorionez horrelako gauzak ondo finakuta daude gaur egun, eta horregatik gure jarduerak ere aldatuz joan da”.**

Esan bezala, zenbaezinak dira urte hauetan guztietan Brankatik Erromon bultzatu diren kultur ekimenak. Zerrenda amaigabea da: mahai-inguruak, erakusketak, elkartruke kulturak beste herri batzuekin (Galizia, Extremadudura...), mus, xake eta futbol txa-

pelketak... Urtero herriko jai batzordean parte hartu izan dute, Olentzero eta Agate Deuna egunetan ere kantatzera ateratzen dira, Zirgarien herri antzerkiaren antolaketan ibili dira... Azken batean, herri kultura, herritik bertatik sustatzen ahalegindu izan da Branka. Bestetik ekimen politikoak ere bultzatu ditu Brankak Erromon: NATOren aurkakoak, Lemoizko nuklearraren aurkakoak, presoan aldekoak, Golkoko Gerra salatzekoak... Izan ere, Branka kultur elkarteak jarrera euskaldun eta aurrerakoiak bultzatu eta defenditu izan ditu beti.

Oztopoak ere izan ditu Brankak bere ibilbidean eta, adibidez, tamalez ezaguna den 18/96 sumarioan sartu zuten, euren sorpresa eta atsekaberako.

«Zenbaezinak dira Brankak antolatutuen kultur ekimenak»

Hala ere, baikor ikusi ditugu brankatarak **“Azaroaren 5ean ospatu genuen 25. urteurren jai handian 200 bat lagun elkartu ginen, gehienak gazte-gateak. Lan handia daukagu, baina zorionez erreleborik ere bada”.** ^m

Komiki Azoka

Abenduaren 2tik 4ra bederatzigarren arteak irudikatuko ditu Getxoko kaleak



Sarrerak euro 1 balio du. Informazio gehiago: www.salondelcomicedegetxo.net

Abenduko lehenengo aste-akabuan egingo da Getxoko IV. Komiki Azoka (11:00-14:30 eta 17:00-21:30), ohiko legez Areetako Geltoki plazan ipiniko duten karpapean. Berrikuntza aberasgarri dextente dakar gainera aurtan Komiki Areatoak. Inoiz baino salmahai gehiago egongo dira (60tik gora) eta nobedadeak edota atzeratutako zenbakiak erosteko aukera ezinhobea da. Horrez gainera, Euskal Irudigileen Elkatearen laguntzagaz, herriko leku ezberdinetan komiki erakusketak daude ikusgai: Getxo Antzokian, Erromoko eta Algortako kultur etxeetan, eta Satistegi, Cafe Glass eta Jai-Alai kafetegietan. Europako lehenengo manga filma den *Gisaku*-ren aurre-

estrenaldia ere eskainiko dute Azokaren ekitaldien barruan.

Irudigile ezagunen sinadurak biltzeko, lantegietan parte hartzeko... aukera izango du marrazki eta irudien erreinura bertaratzen denak. Komiki munduan itzal luzea daukaten irudigileak datoz aurtan ere Getxora, hala nola: Horacio Altuna, Joe Kelly, Carlos Ezquerro, Pascual Ferry eta Ricardo&Nacho bikoteko kide Ricardo. Bestalde, Luis del Olmo umoregile grafikoaren omenez Don Celes ezagunaren gaineko monografikoa ikusgai egongo da. Eta 25 urte komiki salmentan espezializaturik daroan Bilboko Totem liburudari ere egingo diote gorazarrea. ^m

GAZTE HIZKERA LANTZEKO IKASTAROA HILAREN 26AN ETA ABENDUAREN 3AN

Bizarra Lepoan Euskara elkarteak gazte hizkera ikastaroa antolatu du hilaren 26rako eta abenduaren 3rako, zapatuak biak, 09:00etatik 13:00etara bitartean. Adarra jotzea, ligatzea eta haserrea lako gaien inguruan esamoldeak garatuko dira eta esaterako egoera informalean euskarazko erregistro kolokiala erabiltzera animatu gura dute antolatzaileek. Aldai Kulturgunean (Karitate kalea 1) emango da ikastaroa, dohakoa da baina ziurtagiri modura ikastaroaren amaieran itzuliko diren 10 euro ordaindu beharko dira. Izena emateko Bizarra Lepoan Euskara elkartera hurbiltzea besterik ez dago.

Informazio gehiago: 94 491 43 57

SIN CITY FILM IKUSGARRIA HILAREN 30EAN GETXO ANTZOKIAN

Komiki Areato dela-eta zinemazale guztien ahotan ibili den Robert Rodriguez eta Frank Miller-en azken pelikula zoragarria ikusteko aukera egongo da Getxon. Tarantino ospetsuaren laguntza berezia eduki duen thriller basati honek Frank Miller komikilari paregabearen izen bereko lana modu ederrean erakusten du pantaila handian. Hitzordua, Getxo Antzokian hilaren 30ean iluntzeko 7:30ean ipini dute antolatzaileek. Film hau oraindik ikusi ez baduzue, ez ezazue aukera hau galdu.



GA

GALEA

ASESORES, S.L.

AHOLKULARITZA

JURIDIKOA, FISKALA

LABORALA ETA KONTABLEA

Telletxe, 3 - 1. A • ALGORTA

% 94 460 95 12

san inazio

autoeskola

1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP

baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45

ALGORTA

OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokor-
- ma
- Ortodontzia
- Periodontzia

Bidebarri 27, beheko eskuina

ALGORTA

94 94 430 76 96

VIEJO

kopak eta giro jatorria

Alangobbarri, 4 Tel. 94 460 30 03

ALGORTA

Sergio Lozano eta Jose Garcia > mendigoizaleak

Ameriketako hiru mendirik garaienak igotzera abiatuko dira laster leioaztar bi hauek

Abenduaren 17an bi leioaztar hauek Atlantikoa igaroko dute Ameriketako hiru mendirik altuenak igotzeko: Argentina eta Txileko mugan dauden Ojos del Salado (6.864m) eta Pisis (6.882m), eta Argentinako Mendoza lurraldean dagoen Aconcagua (6.959m) ospetsua. Urtarrilaren 22an Sergio Lozano eta Jose Garciak helburua lortuta itzultzea espero dute. Josek, bere al-

«Teknikoki ez dira igoera zailak, baina fisikoki gogorak dira»

detik, ahalegin fisiko bortitzari eta girora moldatzeko aldiari die beldur handien. Sergiok, aldiz, taldekideekiko elkarbizitza, erosotasuna eta hotza ikusten ditu arerio. Ez da erronka makala, Estatu mailan talde bakarrak lortu du-eta halako balentria.

—Nola sortu zitzaizuen Amerikako Hiru Handiak igotzeko ideia?

—Beno, guztiok atsegin dugu mendia eta guztiok ibili gara Piriniotako tontorretan. Gero, norbere burua gainditzeko gogoak bultzatuta erronka berriak bilatzen ditugu. Guztiok sekulako ilusioa daukagu ozeanoa pasa eta erronka berri hauei ekiteko. Taldeko batek halako esperientzietan ibilia da Himalaian... baina beste guztiak berriak gara eta gogo biziz gaude, batez ere, Aconcagua igotzeko.

—Zaila al da halako bidaia antolatzea?

—Antolakuntza enpresa batek egiten du:



Ameriketara abiatzeko gogo biziz daude Sergio eta Jose

Mendiak eta Herriak. Enpresa berezi honek gero mendirako bidaiak, trekkingak eta espedizioak antolatzen ditu. Esaterako, jendea eroaten dute Everest, Makalu edo eskatzen duten tontorra igotzera.

—Nortzuk joango zarete?

—Madrildar bi, iruindar bat eta lau bizkaitar. Gero gida bat ere badator, ingurua ondo eza-gutzen duena eta antolaketaz arduratzen dena.

—Zein igoko duzue lehen?

—Ojos del Salado mendia izango da lehenengoa. Baina, altuerara moldatzeko egokitzapen fase bat egon behar da. Horregatik, inguru horretan, tontorrari ekin aurretik

gorputza altuerara moldatzeko egun batzuetan mendi baxuagoetan ibiliko gara. Hurrengo bi tontorrak igotzeko -Pisis eta Aconcagua-, ordea, gorputza moldatuta egongo da eta ez dugu hainbesteko denbora emango.

—Non ikusten duzue zailtasunik handiena?

—Teknikoki ez dira igoera zailak, baina, bai fisikoki gogorak. Eguraldiak, altuerak, denbora mugatuak eta hainbat faktorek ere igoera gogortu eta zaildu ahal dute. Ordu aldaketa ere organismoan eragin handia omen dauka, eta egunak behar dira normaltasunera itzultzeko. m

Berbalamiñe euskara

elkartek bere lehen urtea bete du



Argazkian, Leioako euskaltzaleak

Orain dela urtebete eratu zen Berbalamiñe Euskara Elkarte. Helburua argia zen: herriko euskaldunen komunitatea trinkotzea. Juan Pedro elkarteko lehendakariak azaldu digunez, urte honetan 2006 urterako plangintza antolatzen eman dute denbora gehien. “Ekintza solteak (afariak, mendi irteerak...) egiteaz aparte sendotze prozesu bat egin dugu, orain da momentua aurrera eramateko”.

Momentu honetan 36 bazkidek osatzen dute elkarte eta hilaren hasieran egindako Batzar Orokorrean datorren urterako egitasmoa onartu zuten. Lehendakariak, berak, argitu digunez, aipagarriena antolaketa izan da. “Plangintza lau ataletan banatu dugu: euskararen promozioa gizartearen, jardueraren kultural

hutsak, kirol jarduerak eta bestelakoak”.

Etorkizunari begira, elkarteak bere burua aurkeztu nahi du udaletxean, alderdi politiko guztien aurrean. “Argi utzi nahi dugu gure taldea ideologia politiko guztietatik kanpo dagoela, guretzat euskara sustatzea horren gainetik dago”. Leioa herri erdaldu-na izanagatik ere euskaraz bizitzea posible ikusten du Berbalamiñeko kideak. “Jende asko etorri da kanpotik denbora laburrean eta nolabait herrian ez da euskal komunitaterik sortu; euskaldunok ez dugu elkar eza-gutzen. Prozesu (elkartearena) hau aurrera aterata euskara gehiago berba egingo da, ez daukagu zalantzarik”. m

Harremanetarako:
berbalamine@euskalerria.org edo 658 701 907

BABES OFIZIALEKO 104 ETXEBIZITZA PINOSOLON

Udalak Pinosolo auzoan Babes Ofizialeko 104 etxebizitza eraikitzeke lizentzia luzatu du. Etxe berriak altxatzeko beharrak datorren urteko udan hasiko dira, eta bi urtetan bukatuta egotea espero dute. Viviendas Vizkaia S.A enpresarekin lortutako akordioari ezker burutuko da egitasmoa. Udaletxeak lurzorua eskaini dio enpresa eraikitzaileari, eta honek etxe berrietan lokalak emango dizkio udaletxeari. Etxebizitzak 2006. urtean zozketatuko dira Etxebidaren bitartez, oraindik zehaztugabeko datan. Zozketan parte hartzeko herrian bost urtez errolatuta eta diru sarrearen baremoan sartzea derrigorrezkoa izango da.

HAURRENTZAKO ETA ESKOLENTZAKO ANTZERKIA

Gurasoek seme-alabengan duten eraginari buruzko gogoeta egiten du azaroaren 28tik abenduaren 4ra arte Kultur Leioan eskainiko den *Si tienes un papa mago...* antzezlanak. Lan honek zalantzan jartzen du zenbait jokabidetan dagoen exigentzia gehiegizkoa zein gehiegizko babesa edo, guztiz kontrakoa, afekturik eza. Eskolentzako emanaldiak egingo dira. Eskolentzako informazio gehiago 94 607 25 78 telefono zenbakira deituta.

“ZIRKOA ETA TXOTXONGILOA” ERAKUSKETA

Zirkoa eta txotxongiloa uztartzen dituen erakusketa bitxia eskainiko du Kultur Leioak azaroaren 28tik aurrera. Zirkoak izaera unibertsala du, barrea, miresmena eta estuasuna mundu zabalean sortu baitu historikoki. Gizakia eredu hartuta lantzen dira txotxongiloak. Corrado Masacci italiarrak bi diziplina hauek elkartuta antolatuta du erakusketa. Irudimena, haurtzaroko gomutak, dibertsioa eta ikusmenari atsegina eragiteko sortutako lana.

ERROTULOAK



**ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
INPRESIO DIGITALAK**

egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

Bordatxu gazte-txoko berria

12 eta 16 urte bitarteko neska-mutilentzako lokala ireki du **Berbots Erandion Euskaraz** elkarteak. Helburua, gaztetxoan artean euskaraz **berba** egiteko ohitura piztea da

Oraingoz bariku eta zapatu arratsaldetan irekitzen ditu ateak udaltxe aurreko plazaren inguruan dagoen lokalak eta hasi orduko bildu da bertara gazte jende andana. Lehenengo asteburuan 50 bat neska-mutil izan ziren bertan eta bigarren astebururako 60tik gora elkartu zirenez, sartzeko eta erabiltzeko neurriak hartu beharko dituzte.



Argazkian, Bordatxuko eragileak; behean, gaztetxoak olgetan

Kuota txiki bat ordainduta Bordatxuko bazkide egin ahal dira 12 eta 16 urte bitarteko herriko neska-mutilak, eta lagunekin egoteko, musika entzuteko, gustuko ekitaldiak antolatzeko, interneteko konexioa erabiltzeko eta antzekoetarako erabil dezakete lokala. Euren interesen eta gogoen arabera tartekatuko dituzte txangoak, ikastaroak, tailerrak eta beste. Hori bai, lokalean euskaraz erabiltzeko konpromisoa eskatuko zaie bazkideei, eta euskaraz egingo dira bertako ekintzak.

Duela urtebete ekin zion Berbotsek gazte-txokoaren proiektua lantzeri, adin horretako seme-alabak dituzten kide batzuek bultzatuta, gazteek euren artean euskaraz oso gutxi erabiltzen dutela eta aisialdian euskararen erabilera suspertzea taldearentzat lehentasuneko eginkizuna izan behar duelakoan. Horrelako proiektu batek baliabide handiak eta tamainako ahalegina eskatzen duenez, elkarrean eta erakundeen arteko elkarlana ezinbestekotzat jo eta gazte-txokoa jartzeko lokala eskatu zion Berbotsek Udalarari. Ez zuten baina horrelakorik lortu eta azkenean alokatu egin dute. Udalak eta Foru Aldundiak diru laguntza eman diete proiektua garatzeko.

Baina dirua ez ezik talde eragile sendoa izatea ere ezinbesteko baldintza da horrelako ekimenak aurrera eramateko eta eragile lanetan buru-belarri sartuta dabilta Ianire, Tamara, Eguzkiñe, Bego eta Vanesa, 21 eta 24 urte bitarteko erandioztarrak. Gazte hauek lehenago ere eragile lanetan ibiliak dira herrian antolatutako hainbat ekitalditan. Orain gogotsu oratu diote egitasmo berriari eta, bide batez, diru apur bat irabazteko aukera ere badaukate. Ianire Morales da Bordatxuko koordinatzailea.

«Gazteen arteko komunikazio hizkuntza euskaraz izatea bultzatu nahi da»

Gazteen arteko komunikazio-hizkuntza euskaraz ere izan dadin laguntzeko tresna izan go delakoan prestatu dute txokoa Berbotsekoek eta denborak erakutsiko du zein neurritan lortzen duten. Premia badago eta ahalegi-



nak merezi du. Erabiltzaileek hala eskatzen badute eta taldeak finantzatzeko baliabideak lortzen baditu, egun gehiagotan ere zabalduko ditu ateak Bordatxuk, baina argi dago herrian bizi diren adin horretako 800 neska-mutilentzat ez dela ekipamendu nahikoa. m

Udal euskaltegia

Makina bat ekitaldi antolatu ditu euskaltegiak **20. urteurrena** ospatzeko



Abenduaren 3an Josu Muruetan joko du Karidadeko Bentak

Erandioko Udal euskaltegia adin nagusikoa da eta udalerriko jendea euskalduntzen 20 urte bete ditu. Urteurren berezi hori ospatzeko ekitaldi desberdinak antolatu dituzte hilaren amaiera eta abenduaren hasierarako. Ekitaldi guztiek, jakina, euskara edukiko dute oinarri eta Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin antolatu dituzte. Txan magoaren magia gozatu ahal izango dugu hilaren 29an, martitzena (Altzagako merkatuan 20:00etan), eta ez pentsa umetxuei zuzendutakoa denik, magia ikuskizun hori helduentzat da-eta. Euskararen kalitatearen gainean kezkatuta edo jakingura duenak hilaren 30ean dauka hitzordua Kike Amonarrizek egingo duen hi-

tzaldian (Josu Murueta, 19:30ean). Abenduaren 1ean, berriz, *Jolas eta jostailuen garrantzia* berbaldi-tailerra egongo da guraso, irakasle, hezitzaile eta begiraleei zuzenduta (Bordatxu Gazte Txokoan, 18:00etan, doan).

Bestalde, punta-puntako euskal musika entzuteko aukera ere egongo da, kasu honetan abenduaren 3an, zapatua (Josu Muruetan, 19:30ean). Eta ondoren, euskaltegiako ikasle eta irakasle ohi guztientzako luntxa egongo da. Azkenik, urteurrena barre eginez agurtzeko, *Shakespeare osoa, gutxi gorabehera* umorezko lana antzeztuko dute abenduaren 4an (Altzagako merkatuan 19:30ean). m

NAZIOARTEKO SARI GARRANTZITSUA LORTU DU ERANDIOK

Erandiok Nazio Batuen Erakundeak sustatzen dituen The International Awards For Livable Communities sariteko bat eskuratu du. Sariok herritarrentzat gero eta erosoagoak diren komunitateak sortzea saritzen dute, eta Erandioak 20.000 eta 75.000 biztanle arteko udalen mailaren saria irabazi du. Maila honetako finalean zeuden Suediako, Esloveniako eta Txekiako udalei nagusitu zaie Erandio. Sarien epaileek Udalak dauzkan zenbait proiektu ezgutu dituzte, hala nola, merkataritzaren suspertzea, herriko gune batzuk oinezkoentzako bide bihurtzea, Metalkimikaren lurra gune berde bihurtzea eta itsasadarreko errepidearen aurreko eremuaren urbanizazioa.



ZUBEROAKO DOINUAK ERANDIO GOIKOAN

Goi-Alde dantza taldeak bere urteurrena dela-eta kultur ekitaldi bereziak antolatu ditu urte osoan zehar. Azkenekoa Maddi Oihenartek eta Josetxo Goia-Aribek hilaren 25ean Erandio Goikoako elizan gaueko bederatzietan eskainiko duten musika emanaldia da. Maddi Oihenart zuberotarra euskal eskenako ahotsik aberats, zintzo eta gutxien kutsatutako baten jabe da. Bere alboan Josetxo Goia-Arriben nafarra egongo da, musika tradizionala era berritzailean jorratzen maisua dena. *Ilhargi-min* deitzen da Maddik eta Josetxok eskainiko duten proposamena.

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixareriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

*nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!*

Txopel sariak 2005

Julio Ibarra telebista aurkezle berritsu eta umoretsua izan zen aurtengo Txopel Sari banaketan zeremonia-maisua. Udaletxeko hallean hilaren 12an egin zen ekitaldian Sopelaren alde lan egiten duten herritarrei egindako beharra aitortu zitzairen. Elkartasun sari berezia Socorros Mutuos eta Sahararen aldeko Nuyum elkarteek jaso zuten. Beste batzuen artean Sopelbike edota Munarrikolanda Mendi Taldearen web orrialdea ere saritu zituzten. Cadiz futbol taldeko Armando Riveiro atezainak eta Dorleta Zorrilla txirindulariak herriaren izena kanpoan ezagutzera emateagatik Txopel bana jaso zuten. Azkenik, Ugeraga kirol taldeak saria eskuratu zuen bere 25 urteko ibilbide oparoagatik.



Adin eta gogo guztientzako musika eta antzerkia Euskararen Astean



Abenduaren 9an Urko kiroldegian abestuko du Lertxundik

Nagusi zein ume, gazte zein zahar, rockero, melodiko, bertsozale... denek aurkituko dute bere lekua, bere gustoko kontzertua edota haibestetan belarrira heldu baina oraindik ikusi barik daukan antzerki lana... Euskararen Astea hamaika koloregaz margoztu dute Sopelan eta itzal handiko gonbidatuak hurbilduko dira bertara.

Euskal rockaren aintzindari Niko Etxarten kontzertuak emango dio hasiera Euskararen Asteari, eta besteak beste, *Eperra* bere azken laneko kantak entzuteko aukera edukiko dute hurreratzen direnek (hilak 25, 21:30 Udaletxeko karpaa). Hurrengo egunean, Kukubiltxoren azken sormen *Dir-dir* ikuskizunagaz gozatu ahalko dute txikienek (18:00, Udaletxeko karpaa).

Nagusiei begira Kanpingags-en *Ezetz Le-poa Jarri* antzezlan antolatuko dute (hilak 30, 20:30, Udaletxeko karpaa). Hurrengo egunean, bertsoaritzak hartuko du lekukoa eta Xabier Paia eta Amurizaren eskutik triki poteoa egiteko deia egin dute. Karidadeko Benta taldearen doinu hurrun eta hurbilakaz gozamen hartzeko parada ere egongo da (abenduak 2, 21:30, Udaletxeko karpaa). Biharmunean, umeentzako *Cantervilleko Mamua* antzerki lana egongo da gozagai (18:00, Udaletxeko karpaa). Eta Euskararen Asteari amaiera emateko Benito Lertxundik plazaratu berri duen azken diskoko kantuak eta beste osatutako kontzertua eskainiko du (hilak 9, 21:30, Urko kiroldegia).

IKASLE EGUNA LARRABASTERRAN OSPATUKO DUTE HILAREN 26AN

Ikasle Abertzaleak erakundeak *Ikasle Eguna* ospatuko dute beste behin aurten ere, eta oraingoan ospakizunetarako topagune legez Larrabastarra aukeratu dute. Hilaren 26an 15:00ak aldera malabareek, hankapaluek, tinbalen doinura zabalduko dute bi karpaa handik osatzen duten gunea (Urko kiroldegi alboan). 19:00etan manifestaldia egindo dute eta ekitaldiaren ostean, 20:00ak aldera hasiko dira gitarrak berotzen: Berri Txarrak, Gatibu, SA eta Ene Bada taldeen kontzertuak antolatuko dituzte. Sarrerak Mikelats, Laiak, La Kala eta Erroia talbernetan daude 13 eurotan salgai (egunean bertan 17 euro).

LAIK
Taberna

Bentatu, 2
48600 Sopela
Tif. 94.6760328

ANDER DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email: sopela@ikastola.net

JATETXE BEGETARIANO

- Eguneko menuak
- Asteburuetan menu bereziak

Serituxa 4, Sopela
Telf. erreserbak: 645 732 991



sari haiz
jan eta edan

Getxoko Andra Mari Zerbitzu Estazioa

Txartel hau aurkezten baduzu
%50 merkeago garbituko dizugu autoa!!!!

Bilbo-Plentzia errepidea 18. km
Getxo / Tel: 94 430 15 00

SEI-HERRIREN IBILALDI NEURTUA HILAREN 20AN

XXIII. Ibilaldi Neurturako hitzordua domeka honetarako ipini du Sei-Herri kultur elkarteak. Bikoteka bete behar den ibilbideak nagusien mailan 16 km inguru dauzka eta txikiak 8 km-ko bidea egin beharko dute. Sei-Herri tabernan egongo da irteera eta helmuga. Nagusiek 08:15etik aurrera eman beharko dute izena (irteera 09:00etan) eta txikiak 09:00etan (irteera 09:30ean). Giharrek berotu ostean, parte hartzaileentzat entsalada, indabak, postrea, kafea eta patxarana doan izango dira; hala ere, ibilbidea egin ez duenak ere herri bazkarian parte har dezake (prezio herriko bat ordainduz). Sari banaketa frontoian egingo da arratsaldeko 06:30ak aldera.

SAHARUIEN ESKUBIDEAK ERRESPETATZEKO MOZIOA

Herri saharaiaren eskubideak errespetatuak izatea eskatzen duen mozioa onartu du Berangoko Udalak azkenengo udalbatzan. EAK aurkeztutako mozioa aho batez onartu zuten udaleko alderdi denek (PPk bi puntu gehitzea eskatu zuen). Eskakizunen artean hauek daude: indar marokoarrei Sahara mendebaleko lurralde okupatueta giza eskubideen erabateko errespetua izatea; Espainiako Gobernuari gatazkaren behin betiko konponbidean esku hartzea; eta NBEari saharaiaren eskubideak eta segurtasuna zaintzea. Hiru erakundeek bidalko diote Berangotik eskaria.

EUSKARAREN ASTEA HILE AMAIERAN

Hilaren 28tik abenduaren 4ra bitartean Euskaren Astea ospatuko dute berangoko txikiak. Astegunetan Euskal Herriko kulturaren gaineko lantegiak antolatuko dituzte (17:30, Ludoteka), abenduaren 3an ipuin-kontalariak egongo dira (18:00, Kultur Etxea), eta domekan Ludoteka ibiltaria paratuko dute pilotalekuan (16:30).

Auditorioa abian Herriarentzako kalitatezko **bilgune berria**



Metro geltokiaren alboan eraikiko dute auditorioa

Berangoko Udalak 5.680 metro koadroko auditorioa eraikitzeko asmoa dauka, eta hori egiteko 3,9 milioi euro baino gehiago bideratuko ditu.

Eraikina Metro geltokiaren inguruan egongo da eta, besteak beste, trenak eragindako Sabino Arana kalearen eta Intxaurraga auzoaren arteko muga gainditzea izango du helburu, herriko alde biak batzea oinezkoentzako igobide, igogailu eta eskaileren bitartez.

Berangoztarrentzako kalitatezko bilgune berria Uribe Kostako korredorearen lanak amaitzen direnean hasiko dira eraikitzen, bitartean proiektua idatzi eta egin beharreko eskakizun legalak eta gai-

nontzekoak beteko dituzte. Bizkaiko Foru Aldundiak Korredorearen lanak datorren urteko azken hiruhilekorako amaitzea aurreikusi du, orduan hasiko lirateke auditorio berria egiten.

Eraikuntzaren sarreran kultur jarduerarako erabilera askotariko areto bat ipiniko dute (antzokia, hitzaldietarako gela...). Areto horren aurrez aurre kiosko eta kafetegi bat jartzeko asmoa ere badauka udalak.

Hala, itxura modernista edukiko duen eraikinaren lehengo harria laster jota 2006ko negu aldean ipiniko ei dute. Ostera, eraikuntza lanak noiz amaituko diren oraindik ezin daitekeela zehaztu adierazi du Berangoko Udalak. ^m

Butroeko gaztelua

Gizarte Asegurantzarekin dituen zorrak kitatzeko **salgai ipini dute** gaztelua



Gatikako eraikina erromantizismo eklektikoaren adibide ikusagarria da

Uribe Kostako mugatik harago begira, galanki eta dotore dakusagu Butroeko Gaztelua. Alabaina, garai bateko aberastasunek ez dituzte gaur egungo zorrak kitatzen eta gotorleku erasoezin izandakoari prezioa ipini diote: gutxien jota 4,9 milioi euro.

Butroeko leinu boteretsuaren dorretxea XIII. mendearen erdialdean eraiki ei zuten, eta Butroeko V. Jaunak gaztelu bihurtu zuen XIV. mende erdialdean. Butroetarrak leinuen arteko borroka odoltsu askotan jardun zuten, Bizkaian Oinaztarren aldeko leinuburu izan ziren Ganboatarren aurkako borroketan. Orduan, Getxo, Martiartu, Asua, Sopela, Sangroniz, Lezama, Zugasti edota Meñaka sendiak mendean zeuzkaten Butroekoak, eta aurkari nagusiak Abendaño leinukoak ziren. Borrokaldiak joan eta etorri, leinu ezberdinen arteko ezkontzak bidean, Gaztelako gortearren defentsako guda... Gaztelua uz-

ten joan ziren Butroetarrak eta leinua ere beste deitura batzuen mende geratu zen. Eraikina gainbeheran joan zen, jausten, eraisten, eraldatzen... 1878an Francisco Cubas arkitektoak gaur egun daukan itxuragaz irudikatu zuen Butroeko gaztelua, eta handik 7 urtera amaitu ziren zaharberritze lanak. Egia esan, gaztelu zaharragaz antze-

«Iaz porrot egin zuen gaztelua kudeatzen zuen enpresak»

kotasun gutxi dauka Cubasen eraikinak. 1989an bigarren eraberritzeari ekin zioten, eta 1994an turismo eta kultur zentro modura zabaltu zituen ateak: Erdi Aroko oturuntzak, bisitak, ikuskizunak antolatzen ziren bertan. Baina iaz porrot egin zuen gaztelua kudeatzen zuen enpresak, eta salgai txartel modernoak dauka historia luzea daukan gazteluak. ^m



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

BASTARTENA



Teléfono: 946 761 128

Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2
ALGORTA



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91


MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

cianoplan Reprografía
global printers

Villa de Pientzia 6. zbk
Antigua Golf - Getxo
Tf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

- Imprimatze eta plano kopiak
- Kartelak kolorez eta z/b
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua
- Fotokopiak kolorez eta z/b
- Era desberdinetako koadernaketak
- Plastifikazioak
- Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak
- enmarkaketak



KALEKO OBRAK EGITEKO LAN POLTSA ZABALDU DUTE GORLIZEN

2006an Gorlizen egingo diren kaleko obretan lan egin ahal izateko poltsa zabaldu du Udalak. Agintariak lan poltsa hau urtero berriztatu nahi dutela ere adierazi dute. Izena eman nahi dutenek udaletxeko bulegoetan euren curriculuma eta INEMeko txartela aurkeztu beharko dituzte. Izena emateko epea abenduaren 15ean amaituko da.


GAZTE PLANA HOBETU NAHI DU UDALAK

Herriko Gazte Plana hobetu eta eguneratzeko lan taldeak antolatuko ditu Udalak. Helburua, herriko 13 eta 35 urteko gazteak inplikatzeko bada, helburuetan hobeto asmatzeko. Gazteekin batera herriko agintariak eta teknikariak biliko dira beharrez.



GORLIZ

Badator Euskararen Astea!



Euskara sencilloaren manifestua azaroaren 30ean antzetzuko da

Azaroaren 29an abiatuko da Euskararen Astea Gorlizen. Egun horretan 18:00etatik aurrera haurren barreak piztuko dituzte Sebastopoleko Titiriteroek frontoian. Biharamunean, *Euskara sencilloaren manifestua* antzetzuko da erakusketa aretoan 19:00-etan. Eguenean (abenduak 1), Koldo Amestoy helduentzako ipuinak kontatuko ditu erakusketa aretoan 19:00etan. Barrikuan berriz, hurrek Xurdir teatro lanare-

kin gozatzeko aukera edukiko dute arratsaldeko seietatik haurra frontoian. Asteburuan (abenduak 2 eta 3) haurrentzako jolas-parkea egongo da pilotalekuan; txirristak, gaztelu puzgarriak ludoteka, herrikirolak... Danetarik egongo da eta beraz txikienek ez dute aspertzeko astirik edukiko. Jolas-parkea goizez, 11:30etatik 13:30-etara egongo da zabalik; arratsaldeetan berri, 16:30etatik 19:30etara. m

Aza. 19 - Abe. 4

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Getxotik Mundura. Ura eta Osasuna.** Erromoko erakusketa gela. Azaroaren 21etik abenduaren 16ra.
► **Hitzak egiten gaitu ezer. Bertsolaritza.** Algortako Torrene kaleko BBK aretoan. Azaroaren 22an hasita.
► **Raquel Alzate. Ilustrazioa eta Komikia.** Erromoko erakusketa gela. Azaroaren 28tik abenduaren 4/12ra.
► **Arteoscuro.com** Algortako erakusketa gela. Azaroaren 28tik hasita.

ERANDIO

► **Sk8UKn, Carlos Terreros.** Skate argazkien erakusketa. Erandioko erakusketa gelan. Azaroaren 21etik abenduaren 4ra. Arratzaldez.

LEIOA

► **Zirkoa eta txotxongiloak** Erakusketa aretoa. Azaroaren 28tik, urtarilaren 8ra.

ZINEMA

GETXO

► **Star Wars: episodio 3.** Haur zinema. Getxo Antzokia. Azaroak 20, doemka. 12:00,17:00 eta 19:00. Sarrera: 1,90 euro.
► **Whale Rider.** Zine klub. Getxo Antzokia. Azaroak 23, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,60 euro.
► **Moolaadé.** Zinema Paradiso. Getxo Antzokia. Azaroak 25, barikua. 22:00. Sarrera: 2,60 euro.
► **Sin City.** Zine Klub. Getxo Antzokia. Azaroak 30, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,60 euro.

► **Aupa Etxebeste!** Getxo Antzokia. Abenduak 3, zapatua.

LEIOA

► **Samaritan Girl.** Perseo Zineforuma. Auditorium. Azaroak 22, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.
► **Daltontarrak.** Haur zinema. Auditorium. Azaroak 27, domeka. 12:00/17:00. Sarrera: 3 euro.
► **The Ring 2.** Perseo Zineforuma. Auditorium. Azaroak 29, martitzena. 20:00.



► **musika**

Zuberoako doinuak Erandio Goikoan

Maddi Oihenart zuberotarra euskal eskenako ahotsik aberats, zintzo eta gutxien kutsatutako baten jabe da. Bere alboan Josetxo Goia-Arbe nafarra egongo da, musika tradizionala era berritzailean jorratzen maisua dena. *Ilhargi-min* deitzen da Maddik eta Josetxok eskainiko duten lana. Goi-Alde dantza taldeak bere urteurrena dela-eta kultur ekitaldi bereziak antolatuko ditu urte osoan zehar Erandio Goikoan. Azkenekoa kantaldi hau duzue.

• **Non:** Erandio Goikoako eliza • **Noiz:** azaroak 25 • **Ordua:** 21:00

ANTZERKIA

GETXO

► **Cuentos del burdel.** Getxo Antzokian. Azaroak 26, zapatua. 20:00 / 22:30. Sarrerak: 12/15 euro.
► **Bertsotranpak.** Ander Lipus, Andoni Egaña eta Aitor Agirino. The Irish Pipers Pub. Azaroak 29, martitzena. 20:00. Doan.
► **Bob, nor da Bob?** Algortako The Irish Pipers Pubean. Azaroak 30, eguaztena. 20:00. Doan.
► **Larru Haizetara**

Mikel Martínez eta Patxo Telleria. Algortako The Irish Pipers Pubean. Abenduak 1, eguena. 20:00. Doan.

LEIOA

► **Eugenia Ardiaren Bidaiak.** Haur Antzerkia. Auditorium. Azaroak 20, igandea. 12:00. Sarrera: 3 euro.
► **Si tienes un papa mago...** Eskola kanpaina. Fantasia en Negro taldea. Auditorium. Azaroak 28 astelehena, 29 martitzena eta 30 eguaztena. 9:30 eta 11:00. Doan.

MUSIKA

LEIOA

► **Beca Dow Chemical.** Auditorium. Azaroak 24, eguena. 20:00. Sarrera: gonbidapenarekin.
► **Trio Sustraiart.** Auditorium. Azaroak 25, barikua. 20:30. Sarrera: 6 euro.

GETXO

► **Hansel eta Gretel.** Haurrentzako Opera. Getxo Antzokia. Azaroak 19, zapatua. 18:00. Sarrera: 3 euro.
► **Zura.** 36ko gerrak desagertarazitako hiru sortzaile omenduko ditu: Lorca, Lauaxeta eta Nikolas Lekuona. Getxo Antzokia. Azaroak 25, barikua. 20:00. Sarrera: 6 euro.
► **Mikel Urdangarin.** Getxo Antzokia. Azaroak 27, domeka. 20:00. Sarrera: 6 euro.

BESTEAK

GETXO

► **Komiki Azoka** Areetako plazan. Abenduaren 2tik 4ra.
► **Gailurrak eta Paretak** Pau anaien hitzaldia. Getxo Antzokian. Azaroak 24, eguena. 20:00.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA



20 ANIVERSARIO
URTEURREN



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

tel. 94 668 15 51

Taxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@euskalnet.net



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Eskualdea sutan

Urriko akabuko egunetan bizi izan dugun ezohiko berote eta haizeteekin batera, eskualdeko hainbat bazter erre dira. Getxo, Berango, Barrika, Sopela... Uribe Kostako ia herri gehienetan suak bere arrasto suntsizailea utzi du. Bestalde, zer esanik ez dago eta gauza jakina da sute gehienak gizonak berak asmo txarrez piztutakoak izaten direla. Hementxe dituzue asmo txar horiek utzi dizkiguten arrastoak.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Ibaizabalen amaiera, hau da, Bilboko itsasadarra, Adan eta Ebaren paradisuaren antzeko zeozer ei zen ez hain aspaldiko garai batean. Gaur egun “burnizko itsasadarra” bezalako esamoldeak ezagun da mundu osoan, eta ezin esan natura lar osasuntsu dabilenik bertan, azken urteotan uraren kalitatea sano hobetu arren. Lanius ornitologia elkarteak kanpaina hasi zuen orain dela urte batzuk, antzinako Eden haren azken zantzu biak gordetze-ko asmoz, biak ere Uribe Kostan: Lamiakoko ibarra eta Getxoko *La Bola* hondartzatxoa. Salatu dutenez, gune bi horiek hondatzear dagoz, ingurugiroarenganako errespetuagaz zerikusi gitxi daukaten interesak direla eta.

Azken zantzuak

Zer jazoko da Lamiakoko ibarrean?

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Astrabudua, hirugarren gunea

Egia esateko, badago Ibaizabalen ertzean, eta Uribe Kostatik urten barik, beste hezegune bat, baina hori, dagoeneko, badago Lurralde Arlo-Planaren inbentarioan sartuta. Astrabuduko ibarra da, eta Zorrakinen esanetan, “bertara joatea nahikoa da zelako egoera *kaxkarrean dagoen konturatzeko*. Babestu beharreko gune izendatzen dituzte, baina zer egiten da benetan babesteko?”. Carlos Matasen ustez, “Uribe Kosta oso aberatsa da ingurugiroari dagokionez, baina utzikeria handia dago erakundeen aldetik. Naturguneen etorkizuna politikarien apetaren menpekoa da. Politikariren batek gustoko edukiko zuen Bolue, eta Boluek aurrera egin du”.

Bai Astrabuduko ibarra bai Bolueko hezegunea (Getxon) 3. mailako gune moduan ageri dira Hezegune Inbentarioan. Hau da, babes-maila baxuenean. Bere kanpainan, Lamiako eta *La Bola* 2. mailako gune izenda ditzatela eskatzen dabil Lanius elkarteak.



Astrabuduko ibarra

Historia ezaguna da, eta ez dugu denbora larregirik galduko beraren barri emoten. Imajinatu Urdaibairen pareko ingurua, baina askoz handiagoa. Halako batean industrializazioa etorri zen, eta leherketa demografikoa, eta hezegune zirenak lur guztiz lehor bihurtzea, eta barra-barra eraikitzea, eta... “*Ni Deustukoa naiz, eta 50 urte dauzkat* -diosku Carlos Matas Lanius elkarteak kideak-; *umetan, bizi-lagunak ikusi ditut etxeko leihotik hegaztiak tiroz hiltzen. Eta orain 50 urte hala bazen, zer ete zen lehenago?*”.

Bistan dago egoera asko aldatu dela. Zikinkeria, kutsadura, etxeak eta etxe gehiago, fabrikak -asko dagoeneko betiko lotan-... Baina harrigarria bada ere, txoko

«Lamiako eta *La Bola* gune babestu izendatzeko eskatu du Laniusek»

batzuek eutsi egin diote gizakiaren ekintza kupidabakoari. Lanius, orain, txoko horiek behin betiko galdu ez daitezela lanean dabil, horretarako beren-beregi abiatutako kanpaina baten bidez.

Begoña Zorrakin da kanpaina horren arduraduna. Adierazi digunez, “*alde bate-tik, asmoa dago Ur Partzuergoaren ur-araztegi bat eraikitzeko Lamiakoko ibarrean. Primeran begitantzen zaigu halakoak egitea,*

behar-beharrezkoak direlako, baina ez hor. Ezin dute Ibaizabalen azken gune naturala hondatu eta aldi berean ingurugiroaren alde dagozala esan”.

Laniusen kanpainak Lamiakoko ibarra eta Getxoko *La Bola* hondartza txikia salbatzea dauka helburu. “*Ez dira izugarri handiak, ez dira Doñana; garai bateko itsas-adarraren azken aztarnak izatetik datorkie balioa*”, diote Matasek eta Zorrakinek. Gainera, hegazti migratzaile askoren atsedeen-lekua da, euren bidaia luzeetan. Horregatik, leku bi horiek Hezeguneen Lurralde Arlo-Planaren (LAP) Hezegune Inbentarioan sartzea eskatu dute. *La Bolari* dagokionez, giza-ekintzak zaildu egiten du hegaztiak lasai egotea, eta gainera trans-

atlantikoentzako kai bat egin gura dute bertan, Laniusekoekin dinoenez.

Laniusek pare bat txosten egin du Lamiakoko ibarra eta *La Bola* hondartza LAPean sar daitezela eskatzeko. Lamiakoko ibarrari dagokionez, gainera, prosamen zehatza egin du inguru hori behar bezala gorde dadin. “*Erakundeek eta Ur Partzuergoari bialdu dizkiegu txostenok* -dio Zorrakinek- *baina ez dugu erantzunik jaso.*



Goiko argazkian, Lamiakoko ibarra; behean, *La Bola* hondartzaren irudi bi



Gehienetan, erakundeek esaten digute arazoa beste erakunde bati dagokiola. Partzuergoari dagokionez, ez dira gugaz harremanean jarri txostena helarazi genienetik, eta badina hiru urte”.

Ur Partzuergoko Garapen Jasangarri Zuzendariordeak, Juanjo Agirrek, ez digu

«Lamiakoko ibarrean araztegi bat egiteko asmoa du Ur Partzuergoak»

argitu Partzuergoak Laniuseri erantzun dion ala ez, baina bere iritzia emon du haien eskariez: “*1975ean egindako saneamendu-planeari araztegi bi egitea aurreikusi zen, bata Galindon eta bestea Lamiakon. Lamiakokoa ez da orain arte egin, ailegatzaren ziren ur-emariak ez zirelako plan*

hartan aurreikusitakoak bezain handiak”. Baina emaria hazi egin da, antza, eta orain beharrezkoa da bigarren araztegia, Lamiakokoa, egitea. “*Beste leku batean egiteko? - itauntzen du Agirrek- Eta nora goaz? Oso erraza da saneamendua hortik kentzeko eskatzea, baina nonon ipini beharko da.*

Araztegia ez da gure guraria. Itsasadarra berreskuratzeke, ardatzetako bat saneamenduko egokiak dira; horrexetanako diseinatu ziren. Bestalde, limo-ingurua ez da ikutu ere egingo; araztegia dagoeneko guztiz urbanizatuta dagoen inguruan egingo da; beraz, kaltea ez da hainbestekoa”.

Migrazioa, abentura latza

Hezeguneak babestuz, landare eta animalia mota ugari babesten dira. Lanius elkarte ornitologikoa izanik, ez da harrizkoa hegazti emotea arreta gehien. Lamiakoko eta *La Bolako* kasuan, hain zuzen, hegazti migratzaileen arazoa da larriena. “*Hegaztiak* -diosku Carlos Matasek- *hegaz egin ahal izateko, ahalik eta pisurik txikiena eduki behar dute. Horregatik ezin dute koipe-erreserbarik eduki. Egun oso bat jan barik emoten duen txorri arrunt bat hil egiten da. Hegazti migratzaileek, euren bidaia*

«Hegazti migratzaileek hurrengo etapa egiteko behar dutena baino ez dute jaten atsedendietan»

*luzeak hasi baino lehen, guztiz ase jaten dute (pisua bikoiztuz, batzuetan), eta etapa bat egiteko pisu nahiko hartzen dute, ez gehiago. Horregatik Lamiakon eta *La Bolan* atsedeen hartzen dagoen hegazti batentzat, funtsezkoa da lasai jateko ahal izatea, bestela ezin izango du hurrengo etapa bete*”. Hau da, hil egingo da. Urtero milaka txorik aukeratzaren dute Ibaizabaleko itsasadarra igarobidetzat, euren kode genetikoak hala aginduta; askok ordu batzuk baino ez dute bertan emoten. Behar dutena jan eta berriro ospa. Baina giza-ekintzak uxatu egiten ditu sarritan, horrek dakarren arriskuaz. Hegazti horien artean zein urte osoa Uribe Kostako hezeguneetan emoten dutenen artean, batzuk desagertzeko zorian dagoz.



Kurlinta bekainduna



Ikaragarria

Carlos Terreros

Argazkikoa Alain Goikoetxea Algortako skater profesionala duzue. Jakin dugunez *ollie to tail slide* izeneko maniobra egiten dago Arriluze inguruan. Zoroa, ikusgarria, beldurgarria, ikaragarria... zuk zeuk ipini adjetiboa irudiari.

ARRILUZE (GETXO), 2000

[berbetan]

Pedro Miguel Etxenike (Izaba, 1950) Euskal Herriko zientzialaririk bikainenetakoa eta, duda barik, ezagunena. Orain gitxi, Espainiako Ikerkuntza Sari Nazionala emon diote, Egoera Solidoaren Fisikari egindako ekarpenagatik. Txinera, gutako gehienontzat. Elkarrizketaren zati batek, hain zuzen, horretaz dihardu: zientzia jende arruntari hurbiltzeko moduez. Arlo horretan eginahalak eskatzen ditu fisikari nafarrak, Euskal Herrian egiten den zientzia hobetzeko aurrerapausuak eskatzen dituen bezala. Hala ere, Etxenikek azpimarratu egin digu autogobernuagaz, eta EAERI dagokionez behintzat, asko hobetu dela. Ez da harrizkoa autogobernuaren aldeko berba gozoak erabiltzea, bera ere haren ikur izan zen eta. 1980tik 1983ra Hezkuntza Sailburu jardun zuen Franco hil osteko lehenengo Eusko Jauriaritzan, eta 1983tik 1984ra, ardura bera eduki zuen Hezkuntza eta Kulturaren Jauriaritzaren bozeroalea eta Euskararen Aholku Batzordeko presidentea ere izan zen, harik eta, guztiz nekatuta, kotxe ofiziala utzi eta bizikleta hartu zuen arte, Cambridgera ospa eginez. Gaur egun, materia kondentsatuaren katedratikoa da EHU-n, eta berak sortutako Donostia International Physics Center (DIPC) ikerkuntza zentroko presidentea ere bai.

Pedro Miguel Etxenike

Zientzia, jaigi hadi plazara

Testua: **Unai Brea**

—Sari bat irabazi barri duzu, eta badira mordotxu bat. Zelan hartzen dituzu?

—Poztasunez. Ikertzaile baten helburua ez da ohorea, ezagutzan aurrea egitea baizik, baina sariak ordain antzeko bat dira. Beraz, pozik hartu dut azken saria, iker-tzaileen aitortpena den heinean, maila pertsonalean, eta instituzioaren -kasu honetan EHUren- ikerkuntza-mailaren aitortpena den heinean ere bai. Jende eta talde on asko dago EHU-n, eta espero dut noizbait haien lana ere aitortua izango dela.

—Emoten du, hala ere, Euskal Herriko zientziaz berba egitean Pedro Miguel Etxenike besterik ez dagoela...

—Ez, askoz jende gehiago dago, Euskal Herrian ikerkuntza-talde on asko dago. Pedro Miguel Etxenike esaten denean, adibidez, talde zabal batez hitz egiten ari da, eta talde horretan batzuk puntako zientzialariak dira. Eta badira beste batzuk Donostiako Kimika Fakultatean, baita Leioan ere. Nolabait, niri egokitu zait iku-

rra izatea, eta pozik daramat hori, baina EHU-n daudenetako bat besterik ez naiz.

—Nik esan gura nuena zera da: **emoten duela zientzia bere txokoan dagoela, jendartetik urrun...**

—Zientzialariek egin behar dutena zientzia ona da, baina eginkizun horren zati bat jendarteari egiten ari direnaren berri ematea ere bada. Zer egiten ari diren, zergatik eta zertarako balio duen. Eta uste dut egin

“Politikak zientzian oinarritu behar du zenbait erabaki hartzeko”

egiten dutela, hartarako foro egokiak ematen dizkietenean. Baina, jakina, inork ez badie fororik eskaintzen... Nire iritziz, zientziari buruzko informazioa daukan jendartea prestatuago dago gaurko mundurako, eta demokratikoagoa ere bada, ez baita hain erraza zenbait talderen interesek jendarte hori manipulatzeko.

—Politikan ibilitakoa zara. Zer harre-

man daukate politikak eta zientziak, handiago eduki behar lukete?

—Ez, politika ez da zientzia eginkizuna. Giza jarrera konplexuak ekuazio edo eredu zientifikoetara eramateko ahaleginak alferrikakoak dira. Halako zerbait da nazismoa, edo komunismoa, gerora porrot eta sufrimendu bilakatu direnak. Hori bai, politikak ez du azientifikoa izan behar, eta zenbait erabaki hartzeko zien-

tzian oinarritu behar du, baina politikak ez du burokraten esku egon behar, herriak aukeratutako ordezkarien esku baizik.

—Politika ez dela azientifikoa izan behar dinozu...

—Politikak ez du ezeren kontrakoa izan behar. Esate baterako, ingugiaren kutsadurarekin edo energiarekin zerikusia daukaten gaiez erabaki behar bada, erabaki



hori ezin da zientziaren aurkakoa izan. Hala ere, zientziak alternatiba desberdinak eskaintzen ditu normalean, eta politikak horien artetik aukeratu behar du.

—**Baina ustez, zientzia zehatza da, hark dinoena egia da ezinbestean. Eta aldiz, eztabaida politiko askotan guztiz aurkakoa dinoen zientzia-txostenak erabiltzen dira argudiotzat.**

—Zientzia, bere muga-mugan, zalantza da hain zuzen. Saiatzea eta hanka sartzea da, atzera egitea berriz... Egia da oso zaila dela dagoeneko zientifikoki frogatuta dauden gertakariak ukatzea. Gaur egungo fisikaren edo mikrobiologiaren oinarriko nukleoak nekez alda daitezke; inoiz gerta daiteke iraultza bat ematea, baina... Jakintzaren mugan dena da eztabaidagarria, baina behin lorpenak iritsita, ezin dira horiek baztertu.

—**Hala ere, eta parkatuko didazu aurreko itauna egitea barrero, zenbait gatazkatant ingurugiroagaz zerikusia daukatenean, batez ere alderdietako bakoitzak guztiz aurkakoa esaten duten txosten zientifikoak aurkezten ditu, bere tesien alde egiteko...**

—Hala da kasu batzuetan, bai. Oso konplexuak diren eta aldagai ugari daukaten zenbait auzitan, ez dago irtenbide bakarria. Dena den, sarritan, eta xehetasun gehiagorik eman gabe, zientzialari “ospetsu” guztiek ez dute ospe maila bera. Beraz, garrantzitsua da nor den nor jakitea. Eta demagogia handia dago. Ni ekologismoaren aldekoa naiz, esterako, baina ekologismo zientifiko baten aldekoa, galdera honi erantzuteko gai dena: benetakoak dira iragarritako arriskuak, eta zein da ezer ez egitearen edo egitearen ordaina? Eta ondoren, alternatibak eskaini jendarteari, hark erabaki dezan. Haatik, ustez zientifikoak diren txosten askok ez dute behar adinako zientzia maila. Edonola, horrek ez du esan nahi gai konplexuetan irtenbidea bakarria eta zurruna denik.

—**Fisika, hain zuzen adituak ez garen**

ikuspegitik— oso zehatza da, ez du eztabaidarako zirrikiturik uzten...

—Ez beti. Jakintzaren muga oso astiro doa aurrera, eta ulertutzat genituen gauzak, batzuetan, ez daude hain argi. Zientzia beti dago etorkizunean egin litekeen esperimendu bidezko baieztatzearen menpe. Zientziak, izan ere, eszeptizismoa elikatzen du, eta alde horretatik mekanismo autoerregulatuak dauka bere baitan.

—**Eztabaida asko egoten da?**

—Bai, zientzia-biltzarretara joatea beste-

“Goi mailako zientziaren dibulgazioa gainditu gabeko ikasgaia dugu”

rik ez dago horretaz jabetzeko. Batzuetan parlamentuko eztabaidak baino sutuagoak izaten dira horakoak.

—**Eta lehia dago? Hor dagoz sariak...**

—Ez dago sariengatik lehiarik, baina bai ideiegatik, noski. Azkenean, esperimendua da behin betiko frogatua. Ideia bat berresten edo ezezten duen esperimendua egin bitartean —eta hori, batzuetan, oso zaila da— zalantza eta borroka asko egoten da. Baita bizitza osorako gorrotoak ere.

—**Zergatik dago zientzia kaletar arruntengandik hain urrun?**

—Ez dakit horren urrun dagoen. Niri iruditzen zait jendeak estimatu egiten duela

“Zientziak aurrera egiteko aukerak eman behar zaizkie sormena duten gazteei”

zientzia, baina ez daukala oinarriko ezagupiderik. Batetik, guztion aldetik ahalegina egiten ez delako; bestetik, zientziak, normalean eta maila batera iritsita, hizkuntza desberdina behar duelako (matematika etab.), eta denbora behar delako hizkuntza hori ikasteko.

—**Ahalegindu beharko ginatke hori zuzentzen?**

—Bai, ahalegina egin beharko litzateke zientzia zabaltzeko. Guk egin dugu, Einsteinen lanari buruzko biltzarra arra-

kastatsua antolatuz. Halako saiakerak egin behar dira; uste dut goi mailako zientziaren zabalkundea gainditu gabeko ikasgaia dugula.

—**Berba asko egiten da zientziaren zabal-kundeaz, baina zientzia konplexuago bihurtzen den heinean, dibulgazioak eskatzen duen hizkuntzara eroateak ez du bidean zeozer galtzea eragiten?**

—Bai noski. Einsteinek esaten zituen gauzak ahalik eta modurik sinpleenean azaldu behar direla, baina ez sinpleago. Bestela,

azaltzen ari dena beste gauza bat da. Uste dut Max Plancki galdetu ziotela: azal zenezake teoria kuantikoa modu errazean? Zera erantzun zuen: ez. Dena den, zientzia dibulgatzaile onak daude, dibulgazioak izugarriko ahalegina eskatzen badu ere.

—**Zertan dabil fisika orain? Entzun eta irakurtzen dugun apurreratik, batzuetan filosofiari hurbiltzen zaio...**

—Dibulgazioak beti begiratzen die gehiagoko gauza txikiei —quarkak— eta gauza handiei —Leherketa Handia—, hori da eta jendea gehien liluratzen duena. Nondik ote gatoz?, eta abar. Eta hortxe ukitzen ditu fisikak filosofia eta transzendentzia.

—**Eta erlijioa ere bai, ia-ia?**

—Duela gutxi esan dut, eta zenbait asaldatu egin dira, Jaungoikoaz fisikariet baino ez dutela hitz egiten dagoeneko. Apezpikuek batasun konstituzionalaz hitz egiten dute, edo hezkuntzaz.

Dena dela, fisikarik liluragarriena, nire ustez, ez da gauza handienak edo txikienak aztertzen dituenak, arruntak aztertzen dituenak benetako izaera aztertzen duena. Zergatik da silizioa supereroalea, zergatik dago

magnetismoa? Materia trinkotua, horixe da gaur egungo fisikaren alor nagusia, eta politena nire ustez.

—**Aurreko galderaren ildo berreskuratuz: Einsteinek esan zuen behin Jaungoikoak ez duela...**

—... dadotan jolasten unibertsoarekin. A zer ohitura Jaungoikoak aipatzeko! Ez dakit nork erantzun zion Einsteini, Bohrek edo Paulik: “Nor zara zu Jainkoari zer egin behar duen esateko?”. Stephen Hawkingi ere asko gustatzen zaio Jainkoa aipatzea, horrela liburu gehiago saltzen duelako nire ustez. Hawkingek esan du Jaungoikoak, unibertsoarekin dadotan jolastaz gain, ikus ezin ditzakegun tokitan ere botatzen dituela.

—**Zelako osasuna dauka zientziak Euskal**

Herrian?

—Halamoduzkoa. Aurrerapen ikusgarria egin da azken 25 urteotan, autogobernari esker. Baina oso behetik hasi ginen, beraz... Edonola ere, uste dut gure maila ekonomiko eta industrialak beharko lukeenetik urrun samar gaudela. Hau ez da proiektu mediatiko handiekin konpontzen, institutuak sortuz eta gazteak zainduduz baizik. Zientzian aurrera egiteko modurik onena jakintzaren mugan unibertsitateak eta zentro publikoak edukitzea da, eta horretarako aukera eman behar zaie sormen gaitasuna duten gure gazteei. Lan-baldintza egokiak eman behar zaizkie, arlo profesionalean zein pertsonalean. Hori egin behar da, eta oraindik ez dugu egin.

—**Eta zelan lortzen da zientzia erakargarriagoa izatea gazteentzat?**

—Zientzia ona eginez, eta lan-aukera onak emanez. Bestela, zientziak ez du erakartzeko, eginkizun gogorra da eta. Herrialde garatuena hasiak dira gai honetaz kezkatzen.

—**Orain dela urte batzuk modan zegoen “burmuin ihesaldia” esakunea...**

—Gurea bezain herri txikitik beti joango da burmuinik, hemen ezin baitugu dena egin. Norbaitek hemen lantzen ez den arlo bat badu gustuko, alde egin beharko du. Bestalde, burmuin ihesatzen uler dezakegu jendea joateko bultzatzea eta gero itzul daitezen baldintzak ez jartzea. Orain, hori ari da gertatzen hein batean; dirua alperrik xahutzeaz gain, bidegabakeria soziala ere bada. ^m

aldizkaria **etxean**
jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
Kalea & zenb.....Herria.....
e-mail.....Telefonia.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro
Kontu zenbakia (20 digito).

OOOO OOOO OO OOOOOOOOOO

UK Uribe Kostako Aldizkaria
171 posta kutxa / 48991 Gebo / uk@aldizkaria.biz
tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31



ENKO, JABI ETA IKER TRANGOKO ZENGABEKO DORREAREN GALLURREAN (6.257 M)


Mendian gora

Aurkezpenik ez dute behar Pou anaiek, puntako eskalatzaileek. Kontinente bakoitzeko paretarik esanguratsuenak eskalatzten dabilta “7 paret, 7 kontinente” izeneko proiektuarekin. Yosemite, Bulnesko Naranja, Pakistango Trango dorrea edota Tasmaniako Totem Pole igo dituzte dagoeneko. Eurekin batera eta ekintza gogoangarri hauek iruditan jasotzeko Jabi Baraiazarra aretarra ibili da azken espediziotan. Argazki hauek horren lekuko ditzue. Bestetik, gogoratu Getxoko Euskara Jardunaldiak direla-eta, berbaldia eskainiko dutela Pou anaiek azaroaren 24an Getxo Antzokian.


Argazkiak: **Jabi Baraiazarra**




TIROLINA TOTEM POLEN (TASMANIA)



TRANGOKO GRANITOA (PAKISTAN)



IKER TSAPANORO KELYN (MADAGASKAR)



ENEKO ANDRINGITAKO MENDILERROA ATZEAN DUELA (MADAGASKAR)



BIBAKA TRANGOKO ZEN GABEKO DORREAN



ETERNAL FLAME-KO ARTEZIEEN ONDORIOAK




IKER TOTEM POLEKO 1. LUZEAN (TASMANIA)



IKER ETA ENEKO ZURBELTZ BIDEAN (BULNESEKO NARANJOA)



TRANGOKO ZENGABEKO DORPEA (PAKISTAN)



TSARANORO MENDIA



ULI BAH-O (PAKISTAN)



TASMANIAKO KOSTALDEA



KARAKORUMEKO AUTOPISTA



GOSARIA 5.000 METROTAN



TRANGOKO KANPAMENDU NAGUISA



TRANGORA JOAN ZIREN ESPEDIZOKO LAGUNAK

zineeskola

Oskar Fernandez

Puntuazio zeinuak (II)

Fundido en negro deitutako puntuazio-zeinua zinemaren hasieran asko erabili izan zen ikusleei denbora luzea igarotzen zela edota lekua aldatzen zela adierazteko. Bat baino gehiago akordatu da fotogramak nola belzten joaten ziren guztiz belzturik agertu arte; gero, pantaila beltz horretatik, fotogramak poliki-poliki argitzen joaten ziren. Baina gaur egun, oso zaila da baliabide hau ikustea. Ikus dezagun orain beste bat, enkadendoa deitutakoa. Puntuazio-zeinu honek aurrekoak duen edo zuen esanahi bertsua du, baina kasu honetan denboraren aldaketa ez zen hain luzea. Aurrekoak denbora luze-luzea -hilabeteak, urtarok, urteak...- pasatzen zela adierazten zuen. Enkadendoa bidez, berriz, egunak edo asteak igarotzen direla adierazten zen. Pantailan holan ikusiten genuen: fotogramak mantso-mantso zirriborratzen ziren hurrengoekin edo zetozenekin, eta hauek gero eta argiago ikusten joaten ziren; azkenean, aurrekoak guztiz desagertzen ziren eta eszena berria argitasun osoz edo gardentasun osoz ikusten zen. Beste baliabide bat asko eta asko erabilia zena "kortinila" deitutakoa izan da. Honek ere aurrekoen antzera denbora eta lekuaren aldaketa adierazten du. Baina kasu honetan denbora ez zen oso luzea izaten: ordu batzuk, egun bat, gutxi gorabehera. Irakurleak suposatzen duen bezalaxe baliabide honi kortinila jarri zioten, benetako gortinarena egiten zuelako filmean. Normalean, edo kasu gehienetan, pantailaren ezkerretatik fotograma bat agertzen hasten zen eta honek astiro-astiro zegoena eskumarantz eramaten zuen desagerrarazi arte. 4

Getxoko Komiki azoka

Gisaku manga filmaren aurre-estreinaldia egingo da abenduren 1ean

“**Antzina** bere kargu utzitako misioa noiz bete zain dago Espainiako tokiren batean samurai bat. Misioa hurrengoan datza: Izanagiren Giltza Gaizkiarengandik babestea. Giltza hori pieza boteretsuz osatzen da eta munduaren atariko sarbidea ixten du. *Gisaku* gaizkiaren eta ongiaren arteko borroka baten istorioa da. Oso ezberdinak diren pertsonaiek, aipatu samuraiagaz batera, elkarlanean jardun beharko dute Ilunbeetako jaun Gorkanek bere asmoa gauzatu ez dezan: deabruzko hordakaz mundua indarrez hartzea...”. Holantxe laburbildu dute abenduaren 1ean Getxo Antzokian (19:30) aurrez estreinatuko duten *Gisaku* filma, Komikiaren Aretoari hasiera ezin hobea emango diona. Manga marrazkien animazio eta abenturako pelikula honetan erraz ezagutuko ditu ikusleak hainbat paisaia, mo-



www.gisaku.com

eguzkiagaz batera amaitzen den istorioa kontatzen du. Filmak-ek ekoiztutako manga animazioko film honek, alabaina, badauzka beste berezitasun batzuk ere; esaterako, ez dator Japonia urrunetik, lehenengo manga film europarra da, Espainiako estatuan sortu dute eta han girotutakoa ere bada. Sitgeseko zinemaldian eman zutenetik ez dute beste inon pantailaratu; beraz, Getxon egingo dute aurre-estreinaldia datorren hileko lehengo egunean eta sarrerak gonbidapen bidezkoak izango dira. m

«Lehenengo manga film europarra Getxon aurre estreinatuko dute»

numentu eta hiri: Guggenheim museoa eta Bilboko metroa, Sevilla, Madril,artzelona... Baltasar Pedrosak zuzenduriko filmak 4 milioi euro inguruko aurrekontua eduki du eta 78 minutuko iraupenean XVII. mendean hasten den eta azken guda gaurko

Ez galdu > Whale rider

• **Non:** Getxo Antzokia • **Noiz:** azaroak 23, eguaztena • **Ordua:** 19:00 • **Zinekluba**



Film eder, interesgarri eta ikusgarri honen atzean Niki Caro dago. Emakume zinemagile hau Zelanda Berriakoa da. Filmaren bidez kontatzen duen istorio atsegin hau Witi Ihimaera idazle maoriak idatzitako eleberrian oinarrituta dago. Niki berak filma zuzendu du baita gidioa idatzi ere. Film honek garatzen duen istorioak maori herriak dituen ohiturak eta kultura ezagutzera ematen ditu. Protagonistaren neba jaiotzean hiltzen da eta bere ama ere bai. Neba deituta zegoen buruzagi izateko herriaren usadioei jarraiki, baina bere heriotzak hutsune handia ekartzen du herrira. Pai, bere arreba, neska izan arren behin eta berriro jendearen aurrean kementsua eta bizkorra dela eta herriaren buruzagia izateko gai dela frogatzen ahaleginduko da.

Lorca eta Lauaxeta gogoan

Zura taldeak ikuskizun musiko-poetikoa eskainiko du hilaren 25ean Getxo Antzokian



Zura taldearen ikuskizunaren une bat

Martxan dago Topagunea Euskara Elkarrean Federazioak antolatzen duen zirkuitu kulturala: *Udagoieneko oster*a Bizkaiko 8 herri-tan ekitaldi bana prestatu dute: musika, antzerkia, pailazoak... Getxoko hitzordua hilaren 25ean da (20:00, Getxo Antzokia) Euskara Jardunaldien egitarauaren barruan, eta aukeraturako agerkaria Zura taldearena da. *Ilargi handi, zauri zara*e (Metak, 2005) Zuraren estreineko diskoan oinarrituriko ikuskizun musiko-poetiko-bisualaz gozatzeko aukera egingo da Getxon.

Xabi Strubelle buru daukan taldearen

lanak Federico Garcia Lorca eta Esteban Urkiaga Lauaxetaren arteko literatur harreman dauka oinarrian, poeta bien 5 olerkiren irakurketa musikatuk osatzen dute. Rock, flamenko, bossanova edota rap lako doinu garrikideek jantzen dituzte tropa frankistek 36ko gerran hildako bi poeten berbak. Heriotzak harilkatzen ditu 5 poemok, horietako 3 Lauaxetako euskaratutako Lorcaren “Cazador” (Eiztari), “Cancion del jinete” (Zaldikari)ren abestija eta “Despedida” (Agurra) dira; gainontzeko biak bizkaitarraren “Langile eraildu bati” eta “Artzain baten erijotzean”. m

diskoak

SFTA
Cujo
Discos Crudos



10 urte bete ditu Getxoko talde honek eta honakoa hirugarren diskoa dute. Atzera begiratu barik egin du aurrera laukoteak eta bere lanik bikainena egin du. 41 minutu eta 43 segundu irauten du diskoak eta ez dauka segundo bat bera ere soberan. 11 kantuk osatzen dute rock munduan bizirauteko adibiderik onenetakoa den *Songs for the afterworld* diskoa.

Lili baten kantorea
Pier Paul Berzaitz
Elkar



Berbetan zein musikan oso aberatsa da Berzaitz zuberotarraren hirugarren disko hau. Elkarrek kaleratu egin du eta grabaketaren kalitatea goraiatu behar da. 13 abesti dauka diskoak eta Karlos Gimenez piano jotzaileak eta Et Incarnatus soka orkestrak lagundu dute. Kantu asko aspaldikoak dira, esaterako, *Berretxerren kantorea* eta *Xalbadorren heriotza*, baina beste batzuk berak sortuak dira.

Kontra
Eraso
Metak



Metal talde sendo honen lan berria. Mikel Anestiaren laguntzaz 90eko hamarkadako metalaren ermito eta soinuak berreskuratu dituzte, gaurkotatunarekin nahastu eta bidea zabalago eta solidoago bihurtu bertan barreiatzen dena behar den bezala transmititu ahal izateko. Inoiz baino gardenagoak, inoiz baino kezkatuagoak, baina inoiz baino indartsuagoak.

Diskoa >

Laboaren azkena



Mikel Laboak bere espiritu urratsailea erakutsi du ostabere bere disko berriarekin: *Xoriek 17* (ELKAR). Urte osoaren behararen emaitza da. Ohiko

kolaboratzaile Iñaki Salvador pianistarekin, Josexo Silguero saxofoi jotzailearekin eta Jean Phocas ingeniariarekin grabatu du disko berri hau beste musikari batzuen kolaborazioarekin. *Xoriek 17* bidaia luzeko diskoa da, 14 abesti ditu eta 3 ataletan bana daiteke. Lehen atalean bere lanaren inspirazio iturri izan diren artistak gogoratu ditu (James Joyce, Billie Holiday); bigarreanean, Atxagari eskatutako txoriei buruzko lana da oinarri; eta azkenean, Atxaga, Sarrionandia eta Brechten testuetan oinarritu da.

RIP >

punkaren historia

RIP taldearen gaineko erreportajea den DVD eta CDa kaleratu dute. Talde bakar baten erreportajea ez eze, 80ko hamarkadaren eta euskal punkaren historiaren zati handia ere bada. Izan, ere, RIP taldea belaunaldi oso baten erreferentzia izan da Euskal Herrian. DVDan ordubeteko dokumentala dago garaiko protagonista eta musikari desberdinen berbak ere jasotzen ditunea, eta beste ordubetan RIPen garai desberdinetako kontzertuak daude -argazkiak, etab.-. CDan, berriz, argitaratu bako eta galzorian egon diren 14 kantu daude entzungai.

etorri
eta
ikus!!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

Getxoko Andra Mari
Zerbitzu Estazioa

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50
merkeago
garbituko dizugu
autoa!!!!

Bilbo-Plentzia errepidea 18. km
Getxo / Tel: 94 430 15 00

GA

**GALEA
ASESORES, S.L.**

**AHOLKULARITZA
JURIDIKOA, FISKALA
LABORALA ETA KONTABLEA**

Telletxe, 3 - 1. A • ALGORTA
% 94 460 95 12

[liburuak]

Euskal presoan omenez

Jose Luis Alvarez Enparanza Txillardegik
Labartzari agur liburua plazaratu du

Labartza kostaldeko herrian kokaturik dagoen istorioa da, inongo mapetan ageri ez den geografia batean, baina irakurleak berehala konprobatuko du gertuko kontuez ari dela Jose Luis Alvarez Enparanza Txillardegik bere azken nobelan, *Labartzari agur* izenekoan. Antton Ihartzegarai da protagonista, hamazazpi urtez espetxean egon ondoren Valcorneja de Cepedillako espetxea utzi eta herrira itzuli dena. Pertsonaiak antz handia dauka idazlearekin: musikazalea da, euskal filologian eta toponimian interesatua, eta historia irakurzailea. Egiazki, etxera itzuli eta Txillardegik berak bere erbestaldiatik bueltan aurkitu zuen Euskal Herriarekin badu harremanik liburuak islatzen duen giroa. Hala ere, eta istorioa egituratzeko orduan bere esperientzia pertsonalek pisu handia izan duten arren -idazlea, luzaro-

«Kartzelan hamazazpi urte igaro ostean etxera itzultzen den preso da protagonista»

rako izan ez arren, hirutan eraman zuten kartzelara- 17 urtez preso egondako Torre Altonaga mungiar adiskidea izan du gogoan Ihartzegarairi buruz idazterakoan. Txillardegik bezala, pertsonaiak existent-



Argazkian, Txillardegik

zialismoa du gogoetagai nagusi. Normala iruditzen zaio egileari ETako militante ohi batek halako kezka edukitzea. *“Esaten denaren kontra, nik ezagututako ETako jende asko oso kezka handiko jendea da, sintomatikoa da; Alvarez Santacristina Txelis eta Sarriñandia hor ditugu”.*

Gipuzkoarraren zazpigarren nobelaren idazkerak bizitasuna du ezaugarri, eta elkarriketak bizkaieraz idatzita daude. Liburu hau, dena den, ez du azkena izango, sei saikera prestatzen ari baita egilea. Haietan, besteak beste, astronomia, erlijioa, antropozentrisismoa zein Sartre izango ditu hizpide. m

liburuak



Hauts bihurtu zineten
Juan Kruz Igerabide
Alberdania

Euskal Herriko auzo txiki batean, frankismoaren azken urteetan eta trantsizio garaian kokatuta dago Igerabideren lehen eleberri hau. Nerabe baten ikuspegitik, Adunako autoreak ongi ezagutzen duen garai eta leku nahasia azaltzen zaigu.



Ezker hanka falta zuen
Lutxo Egia
Susar

Sestao river futbol taldeko atezain ezaguna, Iñaki Gerena, hil egin da. Garai batean herriko gaztetxoan idolo izandakoari hanka bat falta zitzaion: ezkerrekoa. Baina bere sasoi onean zegoenean paregabeak ziren bere geldialdiak; orain, ordea, hilik dago...

[kirola]

Yosemiteko hormetan

AEBetako mendi gogoangarian egon dira
Unzetabarrenetxea eta Marcos getxoztarrak



Miren Gurutze Marcos eta Larraitz Unzetabarrenetxea Yosemiteko paretan gora

Uztail amaieran heldu ziren Miren Gurutze Marcos eta Larraitz Unzetabarrenetxea Yosemiteko Parke nazionalera (AEB). Iritsi bezain pronto lehenengo eragozpena: parke nazionalan gehienez 7 egun bakarrik jar daiteke kanpin denda, hamaika "warning" jaso ostean, egoera "erdi ilegalean" ibili ziren. Bi getxoztarrek motxilan zeramaten helburua hauxe zen: Regular Northwest Face (Half Dome), The Nose eta Salathé (biak El Capitanekoak) bideak igotzea.

Bero itogarria, 40 gradutik gorakoa. 40-45 kiloko motxilak lepoan askotan, bai horman gora, baita paretaraino, bertan gaua igarotzea; granito mota desberdinak ondo ezagutu eta menderatzea... Ez zen giro goxoa, ez zen erronka makala. Hamaika bide artifizial eta bestelakoetan saiatu ziren lehenengo: South Face (Washington Colum), Pilar of frentzi (Cathedral), Cookyes... Pareta gogorrako bat aukeratu zuten gero, AEBetako desplonamendurik handiena: Learning Tower. *“2-3 ordu eman genituen ibiltzen, lehenengo egunean 3 luze egin eta sokak eskegita*

utzi genituen, hurrengo egunean pisu barik ibiltzeko; 2 egun edo eman genituen pareta hartan eta lortu genuen”, dauka gogoan Larraitzek. Half Domeren txanda zen eta goialdean putzu bat ei dago beraz ez da hainbeste urik igo behar, baina zoritxarrez putzua siku zegoen, eta ez egitea erabaki zuten getxoztarrek. Baina jasotako diru-laguntzek ere presio psikologikoa eragiten zien eta East Buttress (El Capitan) bidea egitea erabaki zuten, han aurkitu zuten bide hura, 1953an zabaldu zuten eskalatailearen izena ere badena, ez zen txarra izan. El Capitanen "triple direktoa" egin zuten: Muir, The Nose eta Salathé bideak. Marmot terrazaraino heldu ziren, baina horma garaile. *“Hemendik uste duzue fisikoki bakarrik izango dela gogorra baina psikikoki leher eginda amaitzen duzue; arkaizak zure lekuan jartzen zaitu, ez da jolasa eta edozein akatsek ondorio latzak izan ditzake”*, aitortu du Larraitzek. Hala ere, ez dira esku hutsik itzuli, *“benetan polita izan da, akabuan etortzeko gogorak baina penagaz ere bageunden; zailtasunei zelan aurre egin izan da Yosemiteko ikasi duguna”*. m

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**Kantxa
Kirol moda**




350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXETIKO ELEKTROTRESNEN KONPON-
SERVITIC

Lacofris, S.L.



& 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

BEROGAILU ETA ITURGINTZA

HIRURAK T: 430

Sarrikobaso 15

Aketza Sanchez > Cabo Billano denda-eskolako ugazaba

“Surfa bizimodua da, eta hori irakasten ahalegintzen naiz nire eskolan”



Aketza Sanchez Plentzian

Aketza Sanchez 30 urteko berangoztarrari, geologia ikasketak amaitutakoan, telebistako biziraupen saio batera joatea bururatu zitzaion. Erabaki hark bere bizitza aldatu zuen, eta ez onerako. Hiru urte emon zituen munduan zehar bidaiatzen, famaren olatutik ihes egin guran, eta orain Cabo Billano denda-eskola dauka Plentzian. Surfa eta abentura kirolak, horiek ditu gaur bizirauteko armak.

—Urte bi dagoeneko Cabo Billanok...

—Istori osoa kontatuko dizuet. Telebistako saioan parte hartu eta gero nire aurpegia oso ezaguna zen, eta askok erabili gura zuten. Surf marken komertzial modura hasi nintzen, eta hura izan zen akatsik handiena. Sakeleko telefonoaren eta agendaren menpe bizitzen hasi nintzen, eta ez dut hori maite. Hartatik ihes egiteko sortu zen denda.

—Eta ez ziren ahalegindu telebista munduaren sareetan zu harrapatzen?

—Bai, ni ospetsua nintzen saioa amaitu ze-

nean, eta produktoreek hura erabili gura zuten. *Crónicas Marcianas*era joan behar nintzela, eta abar... Ihes egitea beste urtenbiderik ez nuen ikusi, eta urtean hiru hilabetez baino ez nuenez lan egiten komertzial modura, gainerako bederatzia urrun emoten nituen: Asian, Australian...

—Ez duzu ospea maite, beraz...

—Ez. Bidaia haietatik dena ahaztuta egongo zelakoan bueltatu nintzen, baina usteak erdi ustel: autografoak eskatzen zizkidaten, ezin zinemara edo parrandara gustura joan... Eta

ez da amaitu, jendea oraindik akordatzten da. —Baina zuk bazenekien arrisku hori zegoela, ezta? *Supervivientes* emon zenerako *Gran Hermano* ezaguna zen...

—Ez. Ni 1999an joan nintzen saioa grabatzera, eta 2000an emon zen, *Gran Hermano* bezala hain zuzen. Gurea TVEk emon behar zuen *Al filo de lo imposible*, baina Telecincok, *Gran Hermano*ren arrakasta ikusita, berarentzat erosi eta beste modu batera editatu zuen, interesatzen zitzaiona nabarmenduz: morboa. Guk ez genekien hala izango zenik, abentura eta biziraupen saioa

«Ospearen aurrean, ihes egitea beste urtenbiderik ez nuen ikusi»

izango zela esan ziguten eta hala sinestu genuen. Gero izan ziren gerokoak. Ez nuen ospea gura eta ihes egin nuen. Buelatutakoan beste urte bi emon nituen eskuko telefono saltzaile, baina deseroso nengoen.

—Eta Cabo Billano jaio zen...

—Bai. Denda izateaz gainera, filosofia neska-mutikoei surf egiten edo piraguaz ibiltzen irakastea da, baina harago joanez: jakin dezatela nondik datorren olatua, zergatik igotzen den marea... Hori, kirolagaz batera: surfa, piragua, eskalada, mountain bike eta urpekaritza.

—Ikasle asko daukazu?

—Badauzkat batzuk. Eta esan behar da surfariok kritikatuak izan ginela garai batean. Drogazaleak ginela, halako itxura geneukala... Eta begira orain non dagoen surfa. Batean, garrantzia dauka Mundakako olatua desagertu edo berrosatu den. Lehen inori ez zion axola. Surfak saldu egiten du, marketinga bertan sartuta dago bete-betean. Ni, eskolan, hori gaingintzen ahalegintzen naiz, surfa bizimodua da eta. m

Esakere > “Bilbo ikusi”

Irudia: Gorka Vazquez

“Guzu (gure dozu) Bilbo ikusi?”. Holan esaten yaken umeri, aitxa ta besotan hartuteko edo lepon ganen iminteko. Norbera apur bet gorago para ezkeron, asauko, urruneko gauzak ikusten direz: igual Bilbo bere bai sasoi baten, same ondo luzetu ezkeron. Eta gaur? Gaur bere ikusi lei ume batek Bilbo aitek edo amak aupia iyenta? Gaur igual iyen barik bere bai... ez dau klaru ta, non hasten dan Bilbo eta non amaitzen direzen beste herrik: Bilbo berton deku orain!

Esakera hau Iñaki Gamindek baturiko da, eta beran "Urduizeko berbak eta bizimodu" liburun topako dozue.

Gure berbakere 68**ZELAN ESAN****Beste batek esaniko edo eskaturiko informaziño**

Testua: **Xabi Bilbao**

Informaziño eskatu deuskuela esateko

- Ba(da)kizu zer jakin gure daun horrek?
- Entzun dozu zer pregunta daun?

- Pregunta daust ia non erosi dotezen oñetakok.
- Pregunta dosku hemetik ibiliko ete garan gero.
- Yakin gure dau nora yongo garan.
- Yakin gure daude zegan (zenbatean) paga doguzen tomatek.

Emon dauskuen informaziño esateko

- Ba(da)kizue zer esan daun / zer diñon?
- Entzun dozue zer diñauden horrek?

- Esan daust berak badakille non erosi zapata onak.
- Esan daust non erosi zapata onak.
- Esan daust hortxe bertan erosteko zapatak.
- Baietz esan daust / Ezetz esan daust.

- Berak hori eztakille (ez dakiela) diño.
- Eztiño gauza handirik.
- Diñost hortik yoteko haxe (haize) hartzen.

- Konta daust etxera etorri dakozela udaltzañak.
- Konta daust zelan etor dakozen udaltzañak.
- Berak diñon lez, ondiño goxeti da etzerantza yoteko.

'Esan' aditze

Diñot, diñok, diño, diñu, diñozu, diñozue, diñaude.

Nik zuori diñotsuet; hak zuri diñotsu; haik guri diñoskue; zuk niri diñostezu,...

Adibidek

—Zer *pregúnta* dotsu horrek turístek?
—*Gúrrau* dot ez esan.

—Zer ba? Zer esan dotsu ba?

—*Jakin gure dau nóndi(k) yon Bidezabaleko hondartzara.*

—*Aiko! Béste bat! Bidezabaleko hondártze! Ta zer esan dotsezu?*

—*Bidezabaleko éztakitela baia*

Arrigunagako bai, eta hórtik behera yónta dékola.

—*Májo esan dotsezu!*

—*Baia ezta yon konfórme, berak*

Bidezabaleko hoba dala diño...

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 4302345

Algorta

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO

GIZONENTZAKO
MODA


Telletxe 5
ALGORTA
T:

María

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / basalbokoia

Kafe sorbetea

Bazkari oparoaren ondoren sorbetea baino *digestibo* egokiagorik ez dago. Ti-ta batean prestatzen da, postrearen ordezkoa izan daiteke eta, gainera, gonbidatuen aurrean ederto geratzen da beti. Ezagunena limoizkoa bada ere (limoi izozkia, txanpaia eta vodka apur bat), badira beste aukera batzuk. Esaterako, oraingoan proposatzen dizuedan hau. Esan bezala, segituan egiten da eta ez dauka inongo misteriorik. Kafe izozkia -markak aipatzea gustatzen ez bazait ere, Nestlek egiten duena oso egokia da- eta kafe likorea -adibidez, Tia Maria- irabiagailuarekin nahastu. ^m

osagaiak
kafe izozkia • kafe likore (Tia Maria)



itsaso arana / jolastokikoa

Chardonay mahatsa

Frantziako Borgonan du jatorria munduan estimatuenetakoa den mahats honek. Bere ezaugarrietako bat berez darion ke aroma arina da. Oso emaitza onak ematen ditu egurrean zahartzen denean, oxidazio maila txikia dauka eta. Bere beste ezaugarri azpimarragarria inguru berrietara egokitzeko daukan gaitasuna da. Izan ere, chardonay lantzen den lekuaren arabera aldatzen da, tokian tokiko ezaugarriak bereganatzeko ahalmen handia dauka eta. Nafarroa, Penedes, Somontano... Leku askotara zabaldu da eta, horregatik, kontseilu erregulatuarekin asko nahiz eta kanpoko mahatsa izan, euren jatorri izendapenetan onartzen hasi dira aspalditik. Azkenik, esan behar da aroma dotorea daukala chardonayk, eta ahoan oso atsegina, primerakoa dela. ^m



Jolas Aurre

Algortako betiko taberna



Izaskun Peraita, Estitxu eta Mikel Valdes

Inork gutxi badaki ere Jolas Aurre Algortako tabernarik zaharrenetakoa da; izan ere, orain dela 80 urte inguru zabaldu zituen atea San Nikolas plaza alboan dagoen taberna honek. Antzina Peraitaren taberna bezala ezaguna zen herrian. Gero, 1971n Jolas Aurre izena jarri zioten. Mikel Valdesek eta Izaskun Peraitak -senar-emazteak- 1983an hartu zuten tabernaren ardura eta harrezkero handitza beharrean bezeroak zaintzen, Estitxu euren alabaren laguntzaz. Barra, hantxe bertan egiten dituzten pintxoak ondo hornitua egoten da beti Jolas Aurren. Zerbitzua ere beti kategoriakoa da, eskamentu handia daukate eta. *"Hogei urtetik gona daroagu hemen. Herriko giroa zelan aldatu den ere ikusi dugu. Lehen askoz ere handiagoa zen giroa, giro gaz-*

teagoa eta gauekoa ere bai. Orain berriz, jendea ez da herrian lotzen, kanpora doa, benandua goi izten duten lekuetara, Kirol portura edota Sopelako hondartzako tabernetara. Lo egiteko berria bihurtu da Algorta". Jendearen ohituren aldaketak eta tabernak ixteko ordutegia murrizteak honetan zerikusia handia dutela adierazi digu Mikelek. *"Malguasun apur bat handiagoa behar dugu. Bestetik, lehen ez bezala, orain hostalari bakoitza bere aldetik doa, ez dago batasunik eta horrela ere nekez egingo dugu aurrera".* Baina dena ez da hain txarra, *"bizitzeko beste ematen du tabernak eta primerako bezeroak ditugu hemen".* ^m

JOLAS AURRE
Andres Cortina 4 - Algorta
T.: 94 491 09 67

G gOZOLABEA
galdaretxe
• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria
• Odontologia orokor-
na
• Ortodontzia
• Periodontzia
Bidebarri 27, beheko eskalera
ALGORTA
94 94 430 76 96

Asador Goiezi

- Zabalik egunero
 - Eguneroko menuak
 - Enpresa menuak
 - Menuak norberaren gustura
 - Egunero karta berezia
 - Gauetz dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
 - Jaun hartze bazkariak zure gustura prestatzen ditugu.
- Aretxondo 14**
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?
herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!
Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA



VIEJO
kopak eta giro jatorra
Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

Zurikaldai
JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO

Taberna Berri
Sarrikobaso 4 - ALGORTA
Tf.: 944 306 493

Arasa
Sukalde eta Komunetarako Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen zaharberriak eta dekorazioa
Sarrikobaso, 44 • 48990 Algorta
Tel/Fax: 94 430 11 91



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

aldizkaria etxean jaso nahi baduzu



uk@aldizkaria.biz
94 491 13 37

[horoskopoa]

URA

t



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Momentu honetan gauza larregi daukazu buruan. Aferak banan-banan konpontzen ahalegindu behar duzu ez denak batera, bestela ez duzu bat bera ere konponduko. Apurka-apurka egingo du urak bere bidea eta hasiko dira arazoak desagertzen.

AITZURRA

t



(Martxoak 21 apirilak 19)
Kilo batzuk hartu dituzula eta burumakur zabilza azken aldiak. Darozun elikaduragaz harrizten al zaitu loditu izanak? Horrez gainera, berdin jarraituz gero osasunari kalte egingo diozu. Zaindu zaitetz!

GARIA

t



(Ekainak 19 uztailak 18)
Orain dela zenbat ez zarela amama-aitite bisitatzera joan? Egunen baten lorak eramango dizkiezu baina ez duzu haien irribarrea ikusteko aukerarik izango. Bidaliezazkiezu orain lorak, hala ere, ziur mosu batez konformatuko liratekeela!

META

t



(Irailak 17 urriak 16)
Zorigaitoz nazkatuta, zorion uneren bat ia noiz biziko duzun? Erreparatu aretaz azken bolada, ziur al zaude une pozgarriak ez duzula eduki? Sarri alde txarra daukagu present oroimenean, baina ona ere egoten da gordeta.

OTSOA

t



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Penek bihotzean gainezka egiten dutenean atera ezazu zure taupadagailua erromerian. Min guztiak osatzeko sendagaia ez bada ere, baten bat urrutzeko edabe magikoa izan daiteke. Anima zaitetz, kezak baztertu eta irten plazara, dantzara.

HOSTOA

t



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Beti ez ditugu zeruan izarrak ikusten, baina hor daude. Askotan bakarrik sentitzen gara, gure kezka, arazo eta beldurrak nori aitortu ez daukagula; baina hor dago entzungo gaituen izarretatik, laguna.

LASTOA

t



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Loihartzekoa janzteko garaia heldu da! Nahikoa da gurasoen pagatik bizitzeaz, lotsabako hori! Egia da independentzia garestiegia dela, baina kopeta behar da alferkerian jarraitzeko. Topa ezazu lantxoren bat, gitxienez zure "bixioak" pagateko.

HAZIA

t



(Urriak 17 azaroak 15)
Poltsa, zapatilak, belarritakoak, bufanda... Aurrezki denak xahutu dituzu! Benetan beharrezkoak al dituzu erositate guztiak? Akaso bestelako beharrian bati konponbidea aurkitzekotan egin dituzu erosketak ero horiekin!

ADARRA

t



(Otsailak 19 martxoak 20)
Oraindino urrun, baina hasi zara zuloaren irteera ikusten, argi apur bat hasi da sartzen. Ez da erraza izango, hatzazkalakaz bere oratu beharko duzu amildegian gora egiteko, baina gailurra zuk uste baino askoz hurbilago dago. Eta zuk ahal duzu. Eutsi goiar!

EGUZKIA

t



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Bera futbolzale amorratua da, zuk antzerkia duzu gogoko... erdibideko erabakia hartu beharko duzue, gaur zu irabazle eta bihar bera garaile. Etzi musika kontzertu batera joan zaitzekete, oster, zein talderenera? Erdiko bideari jarraitu.

IRATZEA

t




(Abuztuak 18 irailak 16)
Gogoratzen al dituzu amak barazkiak hegazkinez ahortu behar zizkizun egun haiek? Bada ordutik ez duzu porrusalda, lekak ezta azarik jan. Gaur jandakoaren arabera izango da biharko osasuna, hori diote, behintzat, adituek.

NEGUA

t



(Azaroak 16 abenduak 20)
Irakasgaia ondo baino hobeto ikasi zenuela zin egingo nukeen, baina ez daukazu erremediorik! Laguntza behar izanez gero prest izango dituzu lagunak, baina betiko kontuagaz nazkatzen hasi dira dagoeneko. Aizu, sadomasokista ematen duzu!



KEKO

mungia

OKINdegia

*Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da "ogi mungia".*

*Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.*

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin

1. Auzokoa, aldamenekoa. 2. Olariak. 3. Lapurdiko herria. Burdinbidea. 4. Hiri barruko errepideko tren. Ogi, hitz elkarketan. 5. Eite, itxura. Azkenekoa eta lehenengoa. Sufrea. 6. Ipar., zirikatua. 7. Oxigenoa. Metal estimatua. 8. Urrea. Zaldiak mugiarazteko interjekzioa. Bostehun. 9. Ebazpen. Gizon izena. 10. Intsektu nazkagarria. Gipuzkoako herria.

Goitik behera

1.Esku. Ukatzeko. 2. Gaueko argi. Batrazio ezaguna. 3. Zaraitzuko. 4. Nafarroako Bortziritako herria. Iridioa. 5. Berrogeita hamaika. Bigira, gaualdi. Iodoa. 6. Igarle. Mapa. 7. Laudorio, gorespen. 8. Momentu, lipar. Musika-partituren euskarria. 9. Ipotx, ñaño. Arabako alderdi politikoa. Musika nota. 10. Hutsa, desegokitasuna. Joaki da.

Soluzioak

V	A	V	V	R	H	O	Z
O	M	L	E	T	E	P	A
D	I	R	A	R	A	U	A
A	R	A	L	A	L	Z	O
V	A	T	A	K	I	Z	I
S	A	Z	E	T	E	G	I
T	O	V	A	B	N	T	R
V	N	E	T	R	A	S	A
K	N	O	Z	I	G	O	L
V	N	A	G	I	L	A	B

1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Taula honek hamaika beltzune ditu



ERANDIO-GOIKOAKO "GOIKO LANDA" TABERNAK UTZITAKO ARGAZKIA

asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak



Nor da?

- Barakaldoko semea
- Kirolariak trebatzen aditua
- Athletic-en hasi da beharrean

> Aurrekoaren erantzuna: Mikel Goñi

> Irabazlea: **Ander Arregi (Leioa) ***

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

Argia astekariaren biru bilabeteko harpidetza doan



Freexkue liburua

www.argia.com

Bittor Egurrola

Apurtuarte futbol taldea, 1926

Asua-Erandiokoa da Apurtuarte futbol taldea. 1926ko abuztuan sortu zuten eta goiko argazkia, hain zuzen ere, urte berekoa da. Asuako Lehorbaso futbol zelaian aterata dago, gaur egun ASER enpresa dagoen tokian. Hau dugu, beraz, Apurtuarte bere ibilbide luzean izan duen lehenengo taldea. Hauexek izan ziren taldea sortu zutenak, batzuk jokalaria ere bazirenak: Eduardo Jungitu, Guillermo Agirre, Marzelino Etxegarai, Ramon Covian, Ramon Bikarregi, Bittor Urriaga, Juan eta Luziano Egaña anaiak. Antza, taldearen bultzatzaileek taldea bera abian ipintzeko makina bat traba eta arazo eduki zituzten eta arazo haiei guztiei aurre egiteko jo ta ke prest zeudela adierazteko Apurtuarte izena jarri zioten taldeari.

Erregionaleko lehenengo mailan eman ditu urterik gehienak Apurtuarte, baina esaterako, 1956-57ko denboraldian 3. mailan jokatu zuen, eta 1995-96ean, preferente mailan. Gaur egun talde bi dauzka: bata erregionaleko lehenengo mailan eta bestea bigarrean.

Orain dela lau urte, 2001, 75. urteurrena ospatu zuten. Ziur gaude mendeurrenera ere indartsu eta gogotsu helduko direla. Eta horra heltzeko, hortxe dabilta beharrean Juan Inazio Bilbao, taldeko lehendakari eta jokalaria ohia, eta bere emazte Karnele Ibarrondo. Behargin fin eta isilak. Aurrera beti eta apurtu arte! m

Zutunik: Mario Jauna arbitroa, Elorrieta, Guillermo Agirre, Eduardo Jungitu, Damaso, Kepa Dañoibeitia, Eusebio Urriaga, Luziano Egaña. **Makurtuta:** Jesus Gaztañaga Malloa, Tomas Zarraonaindia atezaina (Athleticeko Zarra ospetsuaren anaia), Tomas Azkorra.



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[aitormenak]

JOANA LASHERAS > kazetaria

“Ez dut leialtasun eza barkatzen”



Defini ezazu zeure burua berba bitan bakarrik. Alaia eta sentibera.

Zein animaliaz zatoz bat? Zergatik?

Txoriarekin, hegaz egitea eta handik eta hemendik mugitzea asko gustatuko litzaidakeelako.

Zein liburu idatziko zenuke? Abenturak eta tentsioa batzen dituen edozein liburu. Horiek dira nire gustukoak.

Eta zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Amodiozko pelikulak asko gustatzen zaizkit. Brad Pittekin izango balitz hobeto!

Historiako zein pertsonaiaren papera miresten duzu gehien?

Bere bizitza besteen zoriontasuna lortzeko helburuarekin eman duen edozein lagunarena.

Zure jakirik gogokoena. Patata tortilla eta arrosa.

Aitor dezakezun bizio bat. Ez dut biziorik. Asteburuetan goiz guztia ohean botata lo egiten ematea bizioa bada, horixe!

Oporretara joateko lekuri aproposena.

Hondartza. Mediterraneo asko gustatzen zait.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen? Leialtasun eza.

Ezin zaitezke bizi... Barre egin gabe.

Zer gordetzen duzu sakeletan?

Sakelak hutsik daramatzat, baina nire poltsan denetarik aurki zenezake.

Zer berri gustatuko litzazuke entzutea albistegi batean?

Bat hautatzea zaila da. Bakea mundu osoan, gosetearen desagertzea, euskararen errekonozimendua...

Zein da gehien errepikatzen zaizun ametsa?

Oso amets gutxi gogoratzen ditut.

Zure azken erokeria.

Londresera bidaia bat bi egunetan hiri guztia ikusteko.

Ohitura txarren bat. Oso neska ona naiz!

Noiz egin zenuen negar azkeneko aldiz? Pasa den astean. m

LABURREAN— Iruñea, 1980. Kazetaria. Umetan San Fermin ikastolan ikasi zuen Joana Lasherak, 18 urterekin kazetaritza ikasketak gauzatzea erabaki zuen. *Navarra Directo* saioan egin izan ditu praktikak eta *Teleberri* eta *Gaur Egun* albistegietan bi urtez jardun eta gero *Udanbeblai* saioa aurkeztu du, eta neska ezagun bihurtu da. Gaur egun, zuzeneko konexioak egiten ditu *Bertatik Bertara* saioan. Telebistan lan egitea du gustukoan, hala ere, ez litzaioke batere inportatuko elbarrituen eta zaharren alde lan egitea. Bestalde, hedabideen munduan lan egiteaz gain, kazetari nafar hau frantses irakaslea izan da, klaseak emateko ez duela balio aitortu digun arren.

udagoieneko



2005 6. edizioa
ostera

Antolatzailea



TOPAGUNEA
Euskara Elkarten Federazioa

Babesleak



Bizkaiko Foru
Aldundia
Kultura Saila

Diputación Foral
de Bizkaia
Departamento de Cultura

bbk

www.topagunea.org

Zura

"ILARGI HANDI ZAURI ZARAE"

Antzerkia, musika, poesia, pintura eta arte bisualak

FEDERICO GARCIA LORCA-LAUAXETA-NICOLAS LEKUONA



GETXO
Getxo Antzokia

azaroak 25
ostirala
20:00etan

sarrera : 6 €

%

ez zaitez
geratu
baskepensiones-era
ekarpenak egin barik
**BBK-k utziko dizu
dirua***
%0ko interesa,
%0ko komisioa eta
%0 UTB

*4.000 euroko gubierneko ekarpenentzat.



baskepensiones

e.p.s.v.